

## ESA URTEGIAREN HANDITZEA

### Artieda erresistentziaren ikur

- **Langabezia** 102.000 lagun inolako diru-sarrerarik gabe Hego Euskal Herrian
- **Xabier Amuriza** «Noizbait munduan ibiltzeko hiztegia osatu beharko da»
- **Zaloa Basabe**, Berdintasun teknikaria «Batzuetan ablazioa emakumeak gizonari eskaintzen dion oparia da»
- **Euskal Dantzaren Adierazpena** Behingoz aintzat har dadin



Irma Gruenholz



## GENERO INDARKERIA, ARAZO ESTRUKTURALA IRTENBIDEA?

- Nola sortzen ditu gizarteak erasotzaileak eta biktimak?
  - Erasotzaileekin zer egin behar da?
  - Salatzen duen emakumeak lasai lo egin dezake?
- Kasuak ugaritu, baliabideak murriztu: Krisi egoerak nola eragingo du genero indarkerian?

### MAHAI-INGURUA

**Maidor Morras**, Genero indarkeriako abokatua eta Arrasateko berdintasun zinegotzia  
**Josebe Iturrioz**, Medeak taldeko kidea, Gipuzkoako Foru Aldundiko Berdintasun saileko langilea  
**Miren Aranguren**, Emakumeen Bilguneako kidea

### ELKARRIZKETA

**Teresa Zabalegi**, Nafarroako Indarkeria Sexistaren Kontrako Emakumeen Plataformako kidea





Azaleko argazkia:

CHARO SOTERAS/  
ARAINFO.ORG  
(CC BY SA)

Azala: GARBINE  
UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekari erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asumendi. Kultura: Garbine Ubeda Goikoetxea. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Iureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. www.argia.com: Gorka Bereziartua, Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoak: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Olatz Korta. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuinta. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 145 euro. Ipar Euskal Herria: 176 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaitza Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza  
diruz lagundua



**Gipuzkoako Foru Aldundia**



## NON ZER

2012ko azaroaren 18a, 2.345. zenbakia

### DEABRUAREN ABOKATUA

**KOLDO TELLITU:** «Gurea baino publikoagorik ba al dago?».  
ARITZ GALARRAGA / 4

### ASTEKO GAIA

**ESA URTEGIAREN HANDITZEA** Zentzurik ez duen proiektua.  
JON TORNER ZABALA / 5

### PERTSONAIA

**MANU MARAÑON:** «Komunikatzea ez da magia, gimnasia baizik».  
SUSTRAI COLINA / 10

### GAIK

**TRANSGENIKOAK** Monsanto entzun nahi ez duena esatearen prezioa. UNAI BREA / 15

**ZALOA BASABE:** «Ablazioaren atzean emakumeen kontrol sexuala egon da beti». AMAIA ZABALA TOLOSA / 18

### IRITZIAREN LEIHOA

**ISLAMA ETA FEMINISMOA** AMAIA LASA ALEGRIA / 22

**HIZKUNTZA-POLITIKA BERRIRAKO OINARRIAK**

IÑAKI MARTÍNEZ DE LUNA / 24

**GORA PRO NOBIS** ASISKO URMENETA / 23

**TXANDAN** Terapiak. EDU ZELAIETA / 24

**HEMEROTEKA** Merkiavelliren indarra: Merkelen zalantza

Europaren krisian. ULRICH BECK / 24

**BERTSO BERRIAK** Kaleratzeak. MIREN AMURIZA PLAZA / 25

### ERDIKO KAIERA

**EUSKAL DANTZAREN ADIERAZPENA** Aldarrikapen publikoa, etxe barruko batasuna indartzeko. UNAI BREA / 26

**ALICIA OTXANDATEGI, BAD JAIALDIA:** «BEZaren igoerak kalte handia egin digu denoi». MYRIAM GARZIA / 30

**LIBURUAK** SAIOA RUIZ GONZALEZ / 32

**DISKOAK** JOXI UBEDA / 33

**DENBORA-PASAK** ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 34

**ALEA** Teatroa maitatzeko. OIER GUILLAN / 35

**ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA** JOXERRA AIZPURUA / 36

**LANDAREAK** JAKOBA ERREKONDO / 37

**DENBORAREN MAKINA** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 38

### TERMOMETROA

**XABIER AMURIZA:** «Euskara batuko hiztegiak zirriborro rustikoak besterik ez dira». MIEL A. ELUSTONDO / 39

**LANGABEZIA DATUAK** Lan merkatuaren egiak poligrafotik pasata.  
URKO APAOLAZA AVILA / 43

**EKONOMIAREN TALAIA** JUAN MARI ARREGI / 47

**EUSKARA ALBISTEAK** ONINTZA IURETA AZKUNE / 47

**NET HURBIL** «Lehiakortasuna» deitzen diotela bizi maila txartzeari.  
PELLO ZUBIRIA KAMINO / 48

**MALTZAGATIK** XABIER LETONA / 50

### KOLDO TELLITU

Euskal Herriko Ikastolak europar kooperatiba-elkarteko burua, hots, Ikastolen Elkartekoa.

| ARITZ GALARRAGA |  
Argazkia: Iñigo Azkona



## «Gurea baino publikoagorik ba al dago?»

**Nik entzun dut ikastolak ez direla eskola pribatuak.**

Galdera da: “Gurea baino publikoagorik ba al dago?”. Herritik sortutakoak gara, ekonomia sozialean oinarritutakoak, irabazi asmorik gabekoak eta zerbitzu publikoa eskaintzen dugunak.

**Baina, sosik ezean, normala da administrazioak bere ikastetxeak salbatu nahi izatea.**

Ez, administrazioa Hezkuntza Sistema osoaz kezkatu behar da, hezkuntza eskubidea bermatzeaz eta hezkuntza den zerbitzu publikoa eskaintzen duten ikastetxe guztiei laguntzeaz.

**Ikastolak eta krisi ekonomikoa. Txarra da harremana, edo ez hainbeste?**

Ona ez, baina aurre egiteko errezetarik eraginkorra dugu, Ikastolen arteko elkartasuna, eta herri bat, Euskal Herria, laguntza eskatzen diogun orotan erantzuten duena, badakielako nor garen.

**Hezkuntza munduan erreferentzia...**

Gure proiektuan oinarritzkoa da Ikerketa+Garapena, eta oraintxe bertan Euskal Curriculumaren garapena. XX. mendeko ikastolen erronka euskara izan zen moduan, Euskal Curriculumak da XXI. mendeko gure erronka.

**Eta jendarteak eta eskolak ez dute euskalduntzen. Ikastolek ere ez?**

Gure esparruetan euskararekiko zaletasuna-

ren tentsioa mantentzen dugu, baina inguru sozial osoan euskararen egoera hobetuz ez badoa, burbuila faltsuan ari gara.

**Ikastolak eragile sozial izan behar baitira.**

Hilabete bukaerara iritsi behar den eragile soziala. Baina bere izaera herrikoiatatik Euskal Herriaren garapenaren subjektu aktibo eta kooperantea da, bere hezkuntza sistema propioarena, euskararena eta bere kulturarena.

**Eztabaidak izan dira Elkartean, antolamendu ereduari, botere banaketari buruzkoak.**

Duela hiru urte, zauriak sendatzen ari dira. Antolamendu eredia adostasun zabalarekin definitzeko gai izan ginen, baina karguen aukeraketa ez ordea.

**Egia al da ezker abertzaleak zuzentzen dituela ikastolen ildoak?**

Ez. Beste kontu bat da zelako interesa erakusten duten gure planteamenduekiko. Eta horrek harreman estu eta arina mantentzera garamatza. EAJ eta PSEekin bezala.

**Zergatik azaldu dira haserre orduan Elkarteko kide batzuk?**

Mugimendu bizi eta anitza gara, eta guztiok helburu bakarra dugun arren –ikastolak– desadostasunak daude estrategiei ala mugimenduaren karakterizazioari dago-kionean. ■





ASTEKO GAIA

ESA URTEGIAREN HANDITZEA

# Zentzurik ez duen proiektua

Esa urtegiaren edukiera bikoizteko planak mehatxupearan ditu Aragoiko hainbat herri txiki. Proiektuaren aurkako borrokaren ikur bilakatu den Artiedan izan gara. Lurrak kendu arren, hormigoiak duintasuna urperatzerik ez duela erakutsi du urte luzeko erresistentziak.

| JON TORNER ZABALA |

Argazkiak: Dani Blanco

“GUREKIN JAI DUTE. Ez dugu hemendik alde egingo. Lurrak lapurtuko dizkigute, baina ez ditugu gure etxeak utziko”. Esa urtegiaren ekialdeko muturrean dago Artieda, Zaragozako lurretan, Aragoi ibaiak atsedean hartzen duen 18 kilometroko *itsasoaren* ateetan. Han elkartu gara Luis Solana laborari eta abeltzainarekin. Herriko alkate ohia eta urtegia handitzeko proiektuaren aurka dagoen Río

Aragón elkarteko presidentea da. Hitz egiten duenean argi ikusten dira 30 urteotako borrokek utzitako arrastoak. Herriaren goialdetik Esa urtegia seinatu digu, eta haren edukiera bikoizteko planaren parte den kamioi eta hondeatzailentzako errepide berriko hormigoizko zutabetzarrak, eta zutabeok jan dituzten lurrak, eta herriaren magalean, laborantzarako sail gehiago, egun agintariak jomugan

Presa Nafarroan dagoen arren, urtegiaren 2.098 hektareek Aragoiko lurrak hartzen dituzte. Atzealdean ikusten diren mendietan dago Artieda, 650 metrora.







Lurren desjabetze legea 1954koa dela azaldu digu Luis Solanek. “Bost axola zaie jakitea nekazari batzuei lur eremu txikia kentzeak ere aurrera egitea galarazi diezaiekeela”.

dituzten horiek. “Uztarako kalitate oneko 600 hektarea ditugu, eta berrehundik gora nahi dituzte desjabetu. Lapurtu. Hori baita hitz egokia. Bost axola zaie jakitea nekazari batzuei lur eremu txikia kentzeak ere aurrera egitea galarazi diezaiekeela”.

Espainiako Ingurumen Ministerioaren eta haren mende dagoen Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren (CHE) “prepotentziak” kexu da Solana, baita ureztatzaileen “harrokeriaz” ere. Esa handitu nahi izateko arrazoietako bat, politikariek diotenez, urtegitik abiatzen den Bardeetako Kanalaren bitartez Erriberako eta Zaragoza iparraldeko Zinco Billas eskualdeko lur-sail gehiago ureztatu ahal izatea da. Río Aragón kolektiboaren ustez, ordea, helburua ez da nekazarien eskaeria asetzea, ura gehien interesatzen zaien lekura eramatea baizik, arrazoi ekonomikoak tarteko. Obra hauek Bardeetako Ubideko Ureztatzaileen Komunitateak eskatu dituela esan digu elkarteko presidentek: “Erakunde horiek politika egiten dute, presio-tresna dira. Ura negozio iturria besterik ez da haientzat, baliabide ekonomiko bat. Uraren kontzesioa

dute eta haren jabe sentitzen dira. Batzuetan autoak hemen behean aparkatu eta obrak ikustera joaten dira, *beraien* urtegia nola dagoen jakiteko, lursailak bisitatzera doazen aberaskiloen moduan. Haiekin batera etortzen dira CHEko ordezkariak ere. Ura kudeatzen

duen instituzioa komunitate horien zerbitzura dago. Onartezina da”.

### Ureztatzeen gezurra

Bardeetako ureztatze guneak zabaltzeko Esa handitu beharrik ez dagoela diote proiektuaren aurkakoek. “Nahikoa da Kanalaren ibilbidean ura gordetzeko dozena erdi baltsa txiki eraikitzea”, esan digu Solanak.

“Datu ofizialek erakusten duten moduan, kostua puztu gabe eskaerak asetzea lortuko litzateke horrela”. Bere hitzetan, baltsa horien –uraren– kudeaketa eraginkorragoa izateko ureztatzaileen esku legoke, haiek direlako eskaera luzatu dutenak. “Hala, ura gordetzeak dakarren kostua, ustiatuko dutenek ordainduko lukete. Haien baliabideak erabili beharrean gureak –lur emankorrenak tartean– hartzen dituzte, ordainetan kalteak eraginez”, azaldu digu “politika kolonial”

**Bardeetako ureztatze guneak zabaltzeko Esa handitu beharrik ez dagoela diote proiektuaren aurkakoek. “Nahikoa da Kanalaren ibilbidean ura gordetzeko dozena erdi baltsa txiki eraikitzea”**

## Edukiera bikoizteko plana

PRIMO DE RIVERAREN diktadurapean hasi zen mami-tzen Esako urtegiaren proiektua. Frankismo garaian inauguratu zuten, 1959an. 76 metroko presa, 2.098 hektarea, 18 kilometro luze eta 450 hm<sup>3</sup> ur gordetze-ko edukiera. 55.000 herritar hornitzen ditu eta Bardeetako Kanalaren bitartez ureztatzerako 81.000 hektarea sortu ditu, bereziki zerealak landatzeko erabili direnak. Urtegiaren edukiera bikoiztu nahi dute orain (1.050 hm<sup>3</sup>-ra arte), presa 100 metrora arte altxa, eta uraren maila 480 metro ingurutik 530era igo. Horretarako 352 milioi euroko aurrekontua onartu du –oraingoz– Espainiako Gobernuak, hasiera batean 113 milioi eurokoa zen arren. “Beste esparru batzuetan murrizketak egiten dituzten bitartean azpiegitura handietako aurrekontuek gorantz egiten dute etengabe”, dio Solanak. “Proiektu honek ez du deus laguntzen. Ezin da garai lehorretarako urik gorde, urik ez badago! Euri gutxiago egiten du eta, gainera, lurraren erabilera aldatu egin da: orubeak bitan zatitu dituzte, abeltzaintza estentsiboa desagertu eta basoak estali egin dira, landare askoz ere gehiago dago... Lurrak ur gehiago xurgatzen du eta erreketara gutxiago heltzen da”. 1959an Ruesta, Tiermas eta Escó herriak hustu eta 1.500 biztanleak beste toki batzuetan kokatu zituzten. Artieda, Mianos eta Sigües mehatxatzen ditu gaur egungo egitasmoak. Hiruen artean 260 bat biztanle dituzte.

### Zalantzak segurtasunaren inguruan

Obrak 2016rako bukatuko dituztela esan dute agintariek. Epeak etengabe atzeratzen ari dira, ordea, urtegiaren alde batean sortutako arrakalen eta haiek eragindako lur mugimenduen –2006koak izan ziren sonatuenak– ondorioz. Espainiako Ingurumen Ministerioak eta CHEk onartu dute presa faila edo apurdua baten gainean finkaturik dagoela, eta behealdeko herritarrak –Zangozakoak tartean– kezkatzen hasiak dira. “Ez nau harritzen”, esan digu Solanak. “Presatik beherako herriek beti pentsatu izan dute urtegiek mesede egiten dutela, uholdeak ekidin ditzaketela, baina...”.



bati buruz mintzo den Solanak. Termino bertsuetan hitz egin zuen Jorge Bielsa ekonomialari eta Zaragozako Unibertsitateko irakasleak pasa den hilean Jakan emandako hitzaldian: “Azpiegitura hauen kostua aurrez ezagutzea garrantzitsua da, baita obrak abiatzeko eskatu dutenak gastuen kargu egitea ere. Zoritzarrez, lehenago edo beranduago guztiok ordainduko ditugula espero dute oraindik”.

Kontuan hartu beharreko beste elementu bat kanalaren ustiapen hidroelektrikoa dela azaldu digu Solanak: “Aipatu komunitateek, teoriar, ureztatzeetarako kontzesioa besterik ez dute, baina zentralak eraiki eta negozioia egiten ari dira”.

Presa Nafarroan dagoen arren, proiektu honi buruz Aragoi hitz egiten dela dio, aragoitarrek eskatzen dutela. “Inguru hauetan ureztatzea mito bat bezalakoa da. Lur lehor asko dugu eta, askoren ustez, urak baino ez ditu bizi araziko. ‘Ura iristean gauzak konponduko dira’, entzun izan dugu maiz. Herritarren subkontzientean pisu handia du horrek; jendeak pentsatzen du urtegiak obra onak direla, aurrerakuntza dakartela. Gainera, lehen ezertxo ere ez zegoen lekuan ura dago

orain, eta uztak. Begirada sinplista horrek iritzi publikoa asko markatu du eta botoen arrantzan ari diren alderdi politikoak ere, IU barne, joko horretan ari dira”.

### Hormigoiairen lobby nagusi

Urtegia handitzearen aldekoek bolo-bolo darabilten beste argumentu bat hauxe da: Zaragozako hiri osoak kalitatezko ur edangarria izan dezan, ezinbestekoa da obrak al bait azkarren amaitzea. Aldiz, Urtegi eta Trasebase Handiek Kaltetutakoen Koordinakundeak (COAGRET) dioenez, hiriburuak badauka mendietako ura gorde eta erabiltzeko azpiegitura: Aragoiko Kanal Inperialarekin bat egiten duen Lotetako urtegia. Ebro ibaiko eta eraiki daitezkeen baltsetako hektometro kubikoak gehituta, Zaragozak urtebeterako ur-gordailua izango lukeela kalkulatu dute.

Solanak nabarmendu duenez, Espainiako Uraren Legeak ahorrako ura –edangarria– lehenesten duen arren, Zaragozak ur edangarria izango luke baldin eta ureztatzeetarako baliatuko litzatekeena sobera geratuko balitz. “Hiriburuaren ur-horniketa bigarren mailakoa da”, esan digu, ondoren gehitzeko kon-





Urriaren 10ean, CHEko ordezkariak desjabetze aktak sinatzera joan zirenean, lagun ugari bidea moztu zuten, poliziak kolpeka sakabanatu zituen arte. Artiedako laborari bakar batek ere ez ditu aktak bere borondatez sinatu.

tzesioak Esaren inaugurazio garaikoak direla. “Errazagoa da gu herritik kanporatzea, kontzesioak aldatzea baino”, diosku. “Ez dute lortuko, ordea”.

Mediterraneo inguruko espekulazio-egaria aseko luketen balizko trasbaseetarako ura gordetzea ei da proiektu hau bultzatzeko ezkutuko arrazoietako bat, José Manuel Nicolau Zaragozako Unibertsitateko biologoak dioenez. “Hormigoia lobbyaren interesak defendatzea da bestea”, gaineratu du Solanak. “Ikusi duzue zer zementu piloa dagoen inguruan? Bai PSOEk 1992-93an, bai PPK 2001ean –Ebroren trasbasearen planarekin– eta bai ondorengo Plan Hidrologiko Nazionalak (2005) ere eredu desarrollista bertsua proposatu dute”. Esa pantanoak estrategia horri jarraitzen dio, baita Biscarrues –proiektuak aurrera eginez gero Gállego ibaiko urak jasoko lituzke– eta Mularroya –Jalon haranean eraikitzen hasi direna– urtegiek ere.

### Aragoi sozialista eta iraultzaile baten alde

Azpiegitura erraldoi horien aurkako borroka da, hain justu, Aragoiko talde ezkertiar eta independentisten ardatz nagusietakoa. Artieda bihurtu da erresistentziaren ikur, urte luzez Esako proiektuaren kontra eta lurraren

defentsan agertutako konpromisoagatik. Horren isla dira urtean behin han egiten diren *Esfendamos a Tierra* jardunaldiak eta iragan asteburuan aldarrikapena eta festa uztartu zituen *Mendiaren duintasunaren alde* izeneko ekitaldia. Prestaketa lanetan zebiltzala izan ginen gu Artiedan.

Bloque Independentista de Cuchas (BIC) taldeak antolatu ditu aipatu jardunaldiak azken urteotan, Chunta Aragoesistak (CHA) gobernatzen duen Udalaren laguntzarekin. 2007an sortua, ezkerreko indarrak piltzea du helburu BICek, Aragoi “libre, antipatriarkal, sozialista eta iraultzailearen alde” modu bateratuan aritzeko. Dozena erdi kolektibo biltzen ditu: Puyalón de Cuchas (erakunde politikoa), Purna-A Chobenalla Reboluzionaria y Independentista (gazte erakunde), A Clau Roya (talde feminista), A Enrestida (kolektibo antifaxista), SOA-STA sindikatua eta Unibersitat ikasle independentista eta iraultzaileen taldea.

Mugimendu independentista erreferentzialtasuna irabazten ari da apurka-apurka, baina apenas du errepresentaziorik instituzioetan. Puyalón alderdiak Aragoi osoan duen zinegotzi bakarra, Israel Olera, Artiedakoa da. Udala CHAko alkateak eta alderdiko zinegotzi batek osatzen dute. Solana agurtu eta



## Herri bizia

**Jesus Solana, irria ezpain eta begietan: “80 lagunek pasatzen dugu Artiedan. Abeltzaintza, laborantza eta aroztegia ditugu euskarri, baita Santiago Bidearen parte den ostatua ere. Herrian bizi diren 20-30 urte inguruko hamabost gazteetako batek egiten du bertan lan. Nekazari eta arotzak dira gehienak. Biztanleria aktiboa inguruko herrietan baino handiagoa da hemen. Historikoki lurgintza banaturik egon da gurean, umilenek ere bazuten beren orubea. Izaera propioa ematen du horrek. Borrokak berezi egin gaitu. Hainbeste neke eta ostia txar... baina gauza onak ere eman dizkigu. Gazteek Aturando Yesa kolektiboa sortu dute. Lurraren defentsan badugu erreleboa. Argumentuak zaharrak dira baina lengoaiia berri beharra dago, eta inportantea da gazteek lekukoa hartzea. Kanpora ikastera joan direnek ere lotura estua gordetzen dute herriarekin”.**

Orerari hots egin diogu telefonoz, belaunaldi gazteagoen ikuspuntua ezagutzeko. “Zer, herrian ez al duzue neska-mutilik aurkitu?”. Ezetz erantzun diogu, gehienak jaialdiko kartelak jartzera joanak zirela eta besteek hitzaldia eman behar zutela Zaragozan. “Pena da, normalean gazte dezente ibiltzen baikara herrian hara eta hona”. Artiedan arnasten den giroa hizpide, hiri handietan ez bezalako bizitza kalitatea dutela esan digu, eta urtegiak herritarrak batu dituela. “Borrokak hemen geratzera bultzatu gaitu. Duintasunari eutsi nahi diogu. Ni helduagoa naiz, baina 20-25 urtekoak ere gatazkaren erdian jaio dira. Hori edan dute, borroka bidegabe hau arimara heldu zaie. Jende mordoak egin dugu bat, ez soilik Artiedakoek, baita Aragoiko gainerako zonaldeetako eta Euskal Herriko ekintzaileek ere, besteren artean”. Horrek guztiak gizarte mugimendua piztu duela dio. “Duela gutxi Biscarruesen egindako ekitaldi jendetsua da horren lekuko. Mendiaren duintasunaren alde 1999-2000 inguruan sortu eta ondorengo urteetan indarra galdu zuen mugimendua biziberritzen ari da orain”.

Ingurumari horretan Puyalón bezalako alderdi batek zein paper jokatzen duen galdetu diogu. “Puyalónen helburua ez da hainbeste instituzioetara heltzea, gizarte mugimenduetan indarra egitea baizik. Dena den, gure bidea hasi besterik ez da egin”. CHArekin duten harremanari dagokionez, Orerak dio bakoitzaren bideek gutxitan egiten dutela bat, nazio mailan bederen. “Haiek sozialdemokratik dira eta gu sozialista iraultzaileak. Haiek instituzioetan egon nahi dute. Herri mailan harreman oso ona dugu, elkarrekin gabiltza honetan, baina gainerakoan... beti daude batzuen edo besteen esanetara”.

Urte hauetan guztietan hedabideek ezikusiarena egin dutela dio, bizi duten gatazkak Arainfo.org eta Tomalatierra.com bezalako webguneetan eta sare sozialetan oihartzun geroz eta handiagoa duen arren. “Jarraipen zabalagoa dugu Euskal Herrian Aragoi baino”, esan digu Orerak, eta Itoizko Solidarioei buruz begirunez hitz egin du: “Harreman handia dugu haiekin, borroka bera da, erabat legitimoa. Zorte txarra izan zuten. 1996ko ekintza [rotaflexekin kableak moztearena] orain egin izan balute Internet bidez mundu osora zabaldu eta gertaerek beste norabide bat hartuko zuten. Talde ekologista batzuek ekintza hura arbuatu izana ulertzerik ez dago, egindakoa kritikatzeko lotsagarria da. Artiedan, belaunaldi gazteek bereziki, beti babestu izan dugu Solidarioen borroka, desobediencia bidea eredu da guretzat”.

Duintasunari indar guztiarekin eutsiko diotela berretsi digute Solanak eta Orerak. Artiedan bizitzen jarraitu nahi dutela diote, eta euren seme-alabek ere aukera hori izatea gustatuko litzaiekeela, lapurreta ororen gainetik. “Yesa No”, diote balkoi antzetan eskegitako banderolek. “Artieda no rebla!”, paretetan marraztutako graffitiek. Ez dituzte kikilduko. ■



lagunekin euskaraz

interneten ere bai!

gure artean euskaraz

mobiletik euskaraz

Noranahi zoazela. Nonahi zaudela. Zure jendearekin. Zure iritzia adierazi nahi duzunean, zeure erara. Euskara zure bizimoduaren osagaia da. Berezkoa duzu. Zu eta zure lagunen artean, zure giroan, **gozatu euskaraz.**

**BFA DFB**  
Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia

# «Komunikatzea ez da magia, gimnasia baizik»

“Airearen kalitateak zure arnasketan eragiten du.  
Zure komunikazioaren kalitateak zure bizitzan”.

| SUSTRAI COLINA |

Argazkiak: Dani Blanco

20 urte eman dituzu EHNE sindikatuan lanean. Erraz esaten da.

Zuzenbidean lizentziatua banaiz ere, nire benetako unibertsitatea EHNE izan da. 25 urterekin hasi nintzen, herrialde mailako sindikatuak zirenak Euskal Herri mailako batean gorpuzteko ahaleginetan. Horrek eman zidan Gipuzkoa, Araba, Nafarroa eta Iparraldea ezagutzeko aukera, eta egun dudan Euskal Herriaren ezagutza zabala EHNEri zor diot. Oso momentu berezi eta korapilatsuak bizitzea egokitu zitzaizdan. Espainia Europar Batasunean sartzea erronka izugarria izan zen guretzat. Bistakoa zen aldaketa ekonomiko eta politikoa zetorrela, baina orduan Europa existitzen bazen, nekazal politika bat zegoelako zen. Orain politika komunak beste arlo batzuetara zabaldu dira, baina ez da ahaztu behar nekazaritzatik eraiki dela Europa. Guretzat oso prozesu konplikatu zen, aberatsa bezain gogorra, konturatzen ginelako oso baldintza kaskarretan sartu ginela Europan, nekazariak Espainia sistema demokratiko horretan kokatu eta onartzeko trukeko txanponak baizik ez zirela. Horiek horrela, izugarri ikasi dut baserriarregandik. Motibazio handiko jende fin, langile, jator eta umilarekin egin dut topo, eta oso harro nago Euskal Herri mailako mugimendua bertebratu genuelako. Orain dela hamar urte utzi nuen, eta handik hona, EHNEren baitan krisi batzuk egon eta ikusgarritasuna falta bazaio ere, etorkizunean euskal nekazal sindikalgitza oso aberatsa izango delakoan nago.

Ikusgarritasuna lortzea: hori da elkarte, sindikatu, mugimendu eta komunikazio aholkulari askoren obsesioa.

Bi arazo daude. Bat izan daiteke komunikatu ahal izateko gauzak egin egin behar direla,

eta geldirik dagoenak, proiekturik aurkezten ez duenak, edo ezer interesgarririk sortzen ez duenak, komunikabideetara jo arren ez duela arrakasta handirik izango. Hor bakoitzak pentsatu behar du zer egiten duen ondo eta zer txarto. Alferrik da besteei erruak egozte eza badugu gure erantzukizuna hartzen. Beste arazoa, gizarte zibileko mugimendu sozial askori gertatzen zaiena da: oso lehengai ona daukate, baina ez dute produktua ondo saltzen. Funtsezkoa da lanari ekitea, proiektuak garatzea, mezu argia izatea, baina baserriar bati, fruta eta barazki onak izateak ez dio baserriar bizi ahal izatea bermatzen. Bizi nahi badu saldu egin behar du. Nire irudipena da herri mugimenduek oso lan ona egiten dutela, baina saltzerako orduan, gutxitan borobiltzen dutela jokaldia. Bitartean, enpresa munduko jendea, politika mundukoa, nolabait esateko botere esferetan dabilena, egundoko ahalegina egiten ari da trebakuntza soziala jasotzeko. Jabetu dira mundua aldatu dela. Badakite orain arteko bertikalitatea bukatzeaz dagoela eta geroz eta horizontalagoak izan beharko dutela harreman sozial eta ekonomiko askoz konplikatuen aurrean. Pena da mugimendu sozialak ez konturatzea.

## NORTASUN AGIRIA

**Manu Marañon** 1957ko abenduaren 6an jaio zen Diman. Deustuko Unibertsitatean zuzenbidean lizentziatua, 1983tik 2002ra EHNE sindikatuan egin zuen lan, eta 1994an egindako irratia eta telebistako komunikatzaileen masterrari esker, 2004tik hona komunikazio *coach*-a da, eta prestakuntza ikastaroak ematen ditu ([www.komunikarte.org](http://www.komunikarte.org)).









Mugimendu, talde eta elkarreak ez ezik, pertsonok ere komunikazioaren alanbrea bizi gara.

Komunikatzeko beharra ez da arazo bat, aukera bat baizik. Komunikatzea gure esku dagoen aukera da. Askotan jendeak pentsatzen du komunikatzeko jaio egin behar dela, berezko dohain baten jabe izan. Ez da hala. Jakina da denok ez dauzkagula baliabide berdinak eta ahalegin bera eginda batzuek lehen mailan jokatu dutela eta besteek hirugarrenean, baina komunikatzea ez da magia, gimnasia baizik. Horrek ondo komunikatzea denon eskura dagoela esan nahi du, beste gauza asko bezala trebakuntza eskatzen duela, eta trebakuntza horri esker autonomia handiagoa, ziurtasuna, malgutasuna eta izugarritzko autokonfiantza irabaziko ditugula. Horrek balioko digu jendearekin harremana izateko, jende aurrean hitz egiteko, negoziatzeko, talde bat zuzentzeko, iniziatiba bat lideratzeko... Hori guztia da komunikazioa, eta hori guztia ikasi, landu eta entrenatu daiteke. Gainera, kontua ez da denok lehen mailan jokatzeko, bakoitzak jokatu behar duen mailan gustura jokatu ahal izatea baizik.

**Ahozko komunikazioa hain premiazkoa izanik, zergatik ez da gehiago lantzen ikastetxeetan?**

Irakaskuntza anglosaxoiarekin konparatuta gure hezkuntza arautuan oso gutxi lantzen den trebakuntza da. Hegoaldean nola ikasi dugu? Irakurriz eta irakasleari entzunda, ez hitz eginez, eta gauzak zer diren, ikasteko era eraginkorra hitz eginez ikastea da. Ikaslea dakiena azaltzen jartzen baduzu ikasketa prozesua borobilduta geratzen da. Hori gutxi ez, eta txikitatik hitz egiten trebatuz gero, akabo jendaurreko beldur eszeniko kritiko hori! Baina ez, hemen isilik egotea hobea dela uste dugu, aho itxian ez dela eulirik sartzen, eta jakina, kasualitatez hitz egitea egokitzen zai-gunean blokeatzen gaituzten kirio eta sententzio eskasei egin behar diegu aurre. Harrigarria da, orain 100 urteko ebakuntza-gela bat gaur egungo batekin konparatuta ez daukate zerikusirik, eta ez dago arazorik Amerikako Estatu Batuetako ikerketen emaitzak hemengo jakintzan txertatzeko. Orain 100 urteko sukaldeak eta gaur egungoak ere erabat desberdinak dira, baina aldaketak aldaketa, nik ikasi nuen ikasgelak eta gaur egungoek antz handia daukate. Horregatik diot, ahozkotasuna txertatu eta ahoz ikastea dela irakaskuntza-errenka handiena.

**Nola egiten zaio aurre jende aurrean hitz egin beharrak dakarren beldur eszeniko horri?**

Sakoneko arazo horri detaile txikiekin egiten zaio aurre. Oso garrantzitsua da hitz egin



baino ordu bi lehenago ur asko edatea, ez-  
 rria ondo hidratatzea, horrek oreka ematen  
 duelako hitzaldi garaiko ezdarri lehorraren  
 aurkako ur trago sistematikoen aurrean. Bes-  
 talde, toki ezezagun batean hitz egin behar  
 baduzu, joan zaitez ordubete lehenago. Parti-  
 da etxean jokatu nahi baduzu tokiarekin  
 familiarizatu behar duzu, zure burua eta  
 publikoa kokatu, eta espazioaren jabe izan.  
 Azkenik, oso garrantzitsua da ahozko mus-  
 kulua ondo berotzea lehen unetik argi eta  
 garbi berba egiten hasteko. Trikimailuak triki-  
 mailu, sinesmen arazoa da. Jendeak badaki  
 hitz egiten, formalidaderik gabeko espazio  
 pribatuetan egoki moldatzen  
 da, baina jendaurrean aritu  
 behar duela esatean ez dakiela  
 adieraziko dizu. Sekulako  
 dibortzioa dago bakoitzaren  
 sentrazioen eta errealitatearen  
 artean. Praktika bat grabatu eta  
 jendeak bere burua ikusten  
 duenean, harrিতta geratzen da,  
 gehien-gehienek uste baino hobeto egiten  
 dute. Nire lana jendearen konfiantza, autoes-  
 timua eta sinesmena piztea da, ez jaungoiko-  
 ak direla pentsa dezaten, euren maila eman  
 dezaten baizik. Horixe da hobetzeko tresnak  
 bereganatzeko lehen pausoa. Gertatzen dena  
 da, herri honetan, ez daukagula ohiturarik  
 jendeari ongi egiten dituen gauzak onartu eta  
 aitortzeko, eta hitzaldi bat bukatu orduko  
 hasten gabela akatsei buruz eztabaidatzen.

**“Gizarte zibileko mugimendu  
 sozial askori gertatzen zaie: oso  
 lehengai ona daukate, baina ez  
 dute produktua ondo saltzen”**

**Aitorpen bat: hitzaldi batera lagungarri bisualik  
 gabe agertzen denari arraro begiratzen zaio. Ez  
 al da PowerPoint-a erabiltzea PowerPointa ondo  
 erabiltzea baino garrantzitsuagoa bihurtu?**

Egia da hitzaldi zorrotz batean egoki txerta-  
 tutako lagungarri bisual on batek balio erantsia  
 eman diezaiokeela aurkezleari. Baliteke  
 jendea informazio gehiagorekin geratzea edo  
 arlo emozionalari atea irekitzea. Gertatzen  
 dena da ez dagoela PowerPointa erabiltzen ez

duen profesionalik, eta gehien-gehienetan,  
 txarto erabilita daude. Askotan testua jartze-  
 ko erabiltzen dira, eta ez dago aldi berean tes-  
 tua irakurriko eta aurkezlea entzungo duenik.  
 Noiz ulertuko dugu hitzaldi guztiek ez dute-  
 la lagungarri bisualik behar eta PowerPoint  
 eskas batek ponentzia on bat izorratu deza-  
 keela? Pozoia dosian dago. Ni tematuta nago  
 testuz beteriko PowerPointak ezinbesteko-  
 tzat dauzkaten profesionali eurena *diapositi-  
 bamendua* eta tortura audiobisuala dela ulerta-  
 razten. Hitzaldiari lagungarria zaiona baizik  
 ez da jarri behar, oso irudi eta testu gutxire-  
 kin. Pentsa, aditu estatubatuar batek dio ez  
 direla sekula sei hitz baino  
 gehiago jarri behar transparen-  
 ztia batean.

**Transparentziaz ari gabela, zer  
 iruditzen zaizu politikarien komu-  
 nikazio maila?**

Ahalegina egiten ari dira beraien  
 komunikazioa eraginkorra izan

dadin. Saiatzen dira errekurtsio ezberdinak  
 egoki erabiltzen: eskuak, keinuak, mugimen-  
 duak, ahotsa... Mezua igortzerakoan, inguruan  
 dauzkaten aholkulari eta estrategei esker, nahi-  
 ko ondo zaintzen dute parafernalia hori. Kon-  
 tuta da komunikazioa ez dela hori bakarrik, eta  
 komunikazio ekintza ororen atzean galdera  
 inplizituak daude. Koherenteak ote dira?  
 Sinesgarriak? Esaten dutena eta egiten dutena  
 bat ote datoz? Zer gertatzen da hitzen eta  
 jarreraren artean kontraesana badago? Eta  
 aurrekoan hartutako konpromisoak ez badi-  
 tuzte bete? Politikan hedabideetan ondo zain-  
 du beharrekoak baloreak dira, bakoitzaren  
 ezaugarriak. Komunikatzen duena pertsona  
 bat da, eta pertsona horrek izan dezake sekula-  
 ko komunikatzeko gaitasuna, izugarritzko gor-  
 putz espresioa, eszenaratze bikaina, baina zer  
 egin dezake jadanik engainatu nauelako ez  
 badiot sinesten? Horregatik, nago, politikariak  
 arlo teknikoan asko saiatzen direla eta aurrera-



## Tolosa

Liburu azoka azaroaren 16tik 25era, San Frantziskon

### EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

*Bizi  
 irakurriz!*



### Aholkua

“Jendeak negoziatzeko, konfrontatzeko, informazioa ondo bideratzeko, egoera zaileri aurre egiteko edo adimen emozionala lantzeko formakuntza berezia aholkatzeko eskatzen didanean, hori asko kostatzen dela eta milaka euro balio duten ikastaro eta kurtsoak daudela erantzuten diet. Baina era berean, portaleko komunitateko presidente izateko gomendatzen diet. Existitzen diren master guztiak baino osoagoa izango da”.

pauso itzelak eman dituztela, baina sinesgarritasunean erantzun gabeko galdera handiak dauzkatela. Ez da kasualitatea gizarteak erreloz hartzea.

#### Kasualitatea da mitinetan trebe eta eztabaidetan kamuts ibiltzea?

Politikariak egunero agertzen dira komunikabideen aurrean, eta erraztasun gehiago edo gutxiagorekin, denak saiatzten dira titularrak eta zeresana ematen. Dena den, nahiko produktu latarratuak izaten dira, ondo lotuak, plastikozkoak ia. Horrek freskotasuna, naturaltasuna eta sinesgarritasuna kentzen die. Dena borobiltzeko perfekzio nahiak kalte egiten dio politikariari. Gainera, eztabaidatzen, legebiltzarrean galderak erantzuten, edo tertulietan entzuten ditugunean, nabarmena da askoz maila eskasagoa dutela. Alabaina, horri konponbidea jarri beharrean, hori saihestu eta estaltzeko joera dago. Esaterako, orain urte batzuk pentsaezina zatekeen galderarik gabeko prentsaurreko bat, baina eguneroko ogia da orain. Detalle horiek askoz gehiago zaindu eta landu behar lirarteke, eboluzioa politikaren sinesgarritasunaren kaltetan eman baita.

#### Eta zer diostazu eguna joan eguna etorri geroz eta motzagoa dirudien kirolarien komunikatzeko gaitasunaz?

Gizartearen erreferenteak izanik, izugarria da hizkuntzentzat, eta zer esanik ez hizkuntza txikientzat, kirolariak duten rola. Hor dago Guardiolak munduan zeharreko prentsa-aretoetan katalanez hitz eginez katalanari eman dion katxea. Horrek sekulako eragina dauka gizartean zein hezkuntzan. Hemen alderantziz da, euskarak oso presentzia murrizta du kirolarien ahotan, eta euren mezuak sinpleak ez, sinplistik dira! “Irabaziz gero gorantz begira hasiko gara”, “3 puntuak lortzea da

garrantzitsuena”, “gure helburua partidaz partida joatea da”... Ordu erdiko kirol albiste-gia entzun eta deprimitu egiten naiz! Horri gehitzen badiozu gehien euskalkia “eta bueno” dela... Uste dut kirolariak oso tratatu eta irudi txarra ematen diotela euskarari, eta hizkuntz normalizazioaren ikuspegitik oso serio heldu behar geniokeela gaiari euskararen presentzia handiagoa bermatuz. Lotsagarria da, penagarria. Gehienak hor esan beharrekoak esateko gai dira, baina ez dute lantzen, ez dira saiatzten, eta azkenean...

#### Lehentasan kontua ez ote den...

Guardiolak lortutakoa lortzeko lan asko egin du, Mourinhok berdin, eta mikro aurrean arraina uretan bezala mugitzen direnak lana beltz egin dutenak dira. Nik ez dut ulertzen egunero jendaurrean agertu behar duena desastre hutsa izatea berba egin behar duen bakoitzean. Ez dut ulertzen nolaz ez dioten behar besteko garrantzirik ematen, nolaz ez duten lehentasunetan sartzen. Beraien irudi eta produktua hobe izateko funtsezkoa da ondo komunikatzea. Baina hori ez da kirolean bakarrik gertatzen. Ez dut ulertzen zenbait jende, kolektibo edo elkarterengana trebakuntza eskainiz ahalegin berezia eginda zuzendu eta aukera ez aprobetxatzea. Baina gero, kontrapuntuan, jadanik oso formatua dagoen jendea, berez askoz behar-izan txikiagoa duena, askoz interes handiagoarekin nire hitz bakoitza zukutzen ikusten dut, eta neurri batean, gorputz txarra uzten dit dikotomia horrek. Nik herri mailako aldarriak zuzentzen dituzten jende, sindikatu, herri mugimendu eta elkarteekin egin nahi dut lan. Oso lan interesgarria egiten dute, landu gabeko diamanteak daukate esku artean, eta egundoko pena ematen dit diamante horiek gaizki saltzen ikusteak. ■





# Monsantok entzun nahi ez duena esatearen prezioa


Gilles-Éric Séralini ikerlariak Monsantoen arto transgenikoaz eta Roundup herbizidaz egindako azken aurkikuntzek transgenikoen lobbya mugiarazi dute. Erabilitako metodologia kritikatu dute askok, transgenikoetarako baimenak lortzeko Monsanto erabilitakoaren berdina edo, kasu batzuetan, hobe delako “ahaztuz”. Ez da kontu berria. Zientzialari askok jasan behar izan dute –Séralinirentzat berarentzat ez da lehenengo aldia– Monsantoen presioa, beren ikerketen berri emategatik. Ikus ditzagun adibide batzuk.

| UNAI BREA |


MARIE-MONIQUE ROBINEN *Le monde selon Monsanto* liburuan “Zientzialari manipulatua” izenburua duen kapitulu bat dago. Kazetari frantziarrak dio, pasarte batean, Monsanto bere produktuak hain erraz inposatu izanaren arrazoietako bat dela manipulazio genetiko gai korapilatsua izatea; alegia, zientzialariek baizik ulertu ezin dutena. “Enpresa jabetu zen bere eragina ziurtatzeko gai honi buruzko iritzia emango zuten zientzialariak kontrolatu behar zituela”.

Esandakoaren froga modura, Robinek Monsantoen barne agiri bat aipatzen du. Txosten konfidentziala da, eta inork ez daki nola iritsi zen transgenikoen gaia gertutik segitzen duen GeneWatch elkarte britainiarren egoitzara. Hamar orrialdetan, kontu zientifikoez arduratzen den Monsantoen departamentuak 2000ko maiatzean eta ekainean egindako lana laburbiltzen du dokumentuak. Egileak pozik azaltzen dira lortutakoarekin, antza. Besteak beste, zenbait zientzialari ospetsu transgenikoen aldeko mezua zabaltzeaz konbentzitu izanagatik beren burua zoriontzen dute Missouri kideek.

Zientzia tematia da ordea. Ikerketa independente askok genetikoki eraldatutako organismoen (GEO) kalteen berri eman dute, eta halakoetan, estrategia izaten da ikertzaileari ospea ebastea. Zientziatik “kanpo” jartzea. Azken batean, GEOen aldekoekin sinestarazi nahi dute, eta hein handi batean lortu egiten dute, produktu horien kaltegabatasuna zientifikoki frogatuta dagoela. Kontrakoa dioten ikerlariak, zientzialari “txarrak” ez ezik, zein gutxi diren gogoraziko dizute. Argudio horri erantzutea badago: hasteko, ez dira hain gutxi. Eta ontzat emango bagenu hainbeste ere ez direla, ondoren datorrena irakurrita uler daiteke horren zergatia, edo zergatietako bat behintzat: adorea behar da GEOei buruzko ikerketa independenteak edo, oro har, bioteknologiaren arloko enpresen interesekin bat ez datozenak abiarazteko. Eta adorea duenak ez du erraz lortuko finantzazioa, bestalde.



Monsantoren publizitatea.



Ikus dezagun zer gertatu zaien beren laborategietan Monsanto zabaltzen duen egiaren ifrentzua aurkitu duten batzuei:

## “Ez da bidezkoa herritarrak akurizat hartzea”

Árpád Pusztai Hungarian jaiotako biokimikaria da. 1995ean, erretiro adina beteta eduki arren, kontratua luzatu zioten Eskoziako Nekazaritza, Ingurumen eta Arrantza Ministerioak eskatutako ikerketa garrantzitsu batez arduratu zedin. Lehen landare transgenikoak landatu berri ziren AEBetan, eta Ministerioak GEOek giza osasunean eduki zezaketen eragina neurtu nahi zuen. Helburua transgenikoek bultzada ematea zen, Europako merkaturara iristear zirean hartan. Pusztai bera bioteknologiaren defendatzailea zen, eta ilusioz ekin zion ikerketari. GEOak seguruak zirela frogatu nahi zuen.

Pusztaiaren lantaldeak behatu zuen patata transgenikoek arratoiengan zer efektu zuten, eta emaitzak ez ziren izan espero bezalakoak. Hasteko, patata haiek ez ziren patata arruntak bezalakoak, haien konposizio kimikoa analizatzean ohartu zirenez. Horrek ez zuen bat egiten GEOei buruzko araudia AEBetan eta munduko beste leku askotan hain biguna izatea ahalbidetu duen substantzia-baliokidetasun printzipioarekin: labur esanda, GEOak beren homologoen berdinak dira *grosso modo*. Printzipio ez-zientifikoa da, baina transgenikoen aldeko mezuaren zutabe nagusietakoa da.

“Patata transgenikoak ere ez ziren bata bestearen baliokideak”, esana du Árpád Pusztai, “horretaz jabetzean, lehen aldiz zalantza egin nuen manipulazio genetiko teknologiatzat hartu ote daitekeen; ni bezalako zientzialari klasiko batentzat, teknologia-

**Ezkerrean Shiv Chopra, eskuman Ignacio Chapela. Lehenak, Kanadako Osasun Zerbitzuan lanpostua galdu zuen rBST hormona transgenikoaren arriskuez ohartarazteagatik. Bigarrenak, bere izena zikintzeko kanpaina izugarria jasan zuen arto mexikarrean ADN transgenikoa aurkitu eta gero.**

ren oinarria da prozesu batek eragin bat baldin badauka, eragin berbera izan behar duela prozesua baldintza berdinetan errepikatzen den aldi guztietan”.

Kontuak kontu, arratoiei osasun arazo larriak eragin zizkien patata transgenikoez elikatzeak. Pusztai elkarrizketa egin zioten BBCn, eta ikerketaren xehetasunen berri eman ezin bazuen ere –argitaratu gabe zegoen, artean–, bere kontrako kanpaina izugarria piztuko zuen esaldia esan zuen, ea berak patata transgenikorik jango ote lukeen galde-tu ziotenean: “Ez, eremu honetan lanean ari den zientzialari gisa, uste dut ez dela bidezkoa britainiar herritarrak akurizat hartzea”. Akabo hamarkadetan pilatutakoa ospea, eta akabo Rowett Institutuko lanpostua. Hori esan eta bi egunera, Washingtonetik Londresera egindako deiren bat tarteko, patatei buruzko ikerketa bikainagatik zorionak eman zizkieten berberak jakinarazi zioten lanetik kaleratuta zegoela.

Gaur egun, transgenikoen aldeko lobbyak, hainbat zientzialari barne, Pusztaiaren ikerketan akats metodologiko larriak izan zirela esaten dio horretaz galdetzen duen orori.

## Kutsadura transgenikoa Mexikon

Ignacio Chapela Kaliforniako Berkeley Unibertsitatean lan egiten duen biologo mexikarra da. GEOei buruzko esperimendu batzuk egin behar zituen ikasleen aurrean, eta erabaki zuen arto transgenikoarekin alderatzeko arto mexikarra erabiltzea kontrol gisa, hori omen da-eta munduko puruena. Hara non, baina, Mexikotik ekarritako aleetan ADN transgenikoa aurkitu zuen. Harrituta, ikerketa abiatu zuen arto mexikarraren kutsadura baieztatzeko. Bai eta baieztatu ere. Emaitzak Mexikoko Gobernuari helarazi zizkion, eta



hark ere bere ikerketa egin zuen, emaitza berarekin.

Chapelaren aurkikuntzek ondorio latzak zekarzkie Monsanto. Ez hainbeste kutsaduragatik, baina bai ADN transgeniko zatien kokapenagatik: kutsatutako landareen genoman modu aleatorioan kokatuta zeuden. Horrek esan nahi du, Chapelaren hitzetan, GEOen fabrikatzaileek kontrakoa esan arren manipulazio genetiko ez dela egonkorra.

Erasoak hainbat frontetatik iritsi zitzaizkion Chapelari. Bere ikerlanaren emaitzak *Nature* aldizkarian argitaratu ziren egun berean, Mary Murphy eta Andura Smetacek ustezko zientzialarien izenekin sinatutako posta elektronikoa bana iritsi ziren GEOen aldeko elkarte baten (AgBioWorld) webgunea. Funtsean, Chapelari leporatzen zioten aktibista izatea zientzialaria baino lehen, eta haren ikerlanaren emaitza oso lerratuta egotea. Denbora laburrean, e-mail horiek milaka zientzialariren ordenagailuetara iritsi ziren, AgBioWorld-en posta zerrenden bitartez.

Mary Murphy eta Andura Smetacek ez dira existitzen, *The Guardian* egunkariako George Monbiot kazetariak frogatu zuenez. Posta elektronikoko horietako bat Monsanto berak igorri zuen; bestea, Monsantoentzat lan egiten duen Bivings komunikazio enpresak. Internet bidez presio egitea dute espezialitatea.

Lana ondo egiten dutela onartu beharko. *Nature* ezohiko editoriala argitaratu zuen 2002ko apirilaren 4an, Chapelaren artikulua sekula argitaratu behar ez zela esanez. Ez omen zegoen frogatzen nahikorik zientzialari mexikarrak lortutako ondorioak justifikatzeko. Ez zion axola, itxuraz, hilabete lehenago beste ikerlari talde bik Chapelaren emaitzak berretsi izanak *Science* aldizkarian.

### Burroughs, Chopra, Malatesta...

Bada adibide gehiago. Aldizkari oso bat beteko genuke kasu bakoitza behar den xehetasunez azalduko bagenu, baina zenbait aipatzea merezi du, akaso jakin-minez geratu den irakurleak azterna modura erabili ditzan.

Monsantok genetikoki manipulatu zuen lehen produktua ez zen landare bat izan, hormona bat baizik: behien hazkunde-hormona, rBST edo rBGH siglekin ezagunagoa. Behiei injektatuta, haien esne-produkzioa handitzen da. Bada, zientzialari bik beren lanpostua galdu zuten rBST behi zein gizakien osasunari eragindako kalteak agerian uzteagatik: Richard Burroughs FDAko (AEBetan elikagaien merkaturatzea baimentzen duen agentzia) albaitari ohia, eta Shiv Chopra Kanadako Osasun Zer-



Gilles-Éric Séralinik sekretupean egin du arto transgenikoari buruzko ikerketa, Monsanto azken unera arte ezer jakin ez zezan.

**Ikerketa batek genetikoki eraldatutako organismoen kalteen berri ematen badu, Monsantoen estrategia izaten da ikertzaileari ospea ebastea. Zientziatik "kanpo" uztea**

bitzuko mikrobiologo ohia. Behien hazkunde-hormona debekatuta dago Kanadan eta Europar Batasunean, besteak beste.

2000. urtean, Urbinoko Unibertsitateko Manuela Malatesta iker-tzaile italiarrak Monsanto soja transgenikoarekin egindako esperimentu bat errepikatu zuen bere laborategian. Soja hura jan zuten saguek, Monsantoen ikerketan ez bezala, osasun arazoak eduki zituzten. Malatestari ikertzen jarraitze-ko diru-laguntzak kendu zitzioten. Eta abar.

### Ikerlanen aurrean irizpide bikoitza

Azken asteetan Gilles-Éric Séralini jasotzen ari den kritika oldea dela eta, ENSSER elkarteak (Gizarte eta Ingurumenarekin Arduratutako Zientzialarien Sarea) deklarazio bat plazaratu du. Batetik, arto transgenikoari buruz Séralinik egindako ikerlanaren balio zientifikoa berretzeko. Bestetik, salaketa argia egiteko: industriak eta hari lotutako zientzialariek GEOak aztertzeko metodologia egokien garapena oztapatzen dute; horren ordez, arautzeko ardura duten erakundeek ontzat ematen dute substantzia-baliokidetasun printzipioa. Azkenik, Séraliniri egindako kritikak ondo antolatutako kanpaina baten barruan daudela adierazi dute. Diotenez, Europar Batasuneko Elikagaien Segurtasun Agentziak, eta ez berak bakarrik, transgenikoen eragin negatiboak agertzen dituzten ikerlanak besterik ez ditu zorroztasunez ebaluatzen, eta besteak ontzat ematen ditu gehiegi sakondu gabe. ■



ZALOA BASABE

BERDINTASUN TEKNIKARIA

# «Ablazioaren atzean emakumeen kontrol sexuala egon da beti»

Somalian gobernuaren osatzearekin batera, bertako konstituzioan ablazioa debekatu dute, Afrikako beste hainbat herrialdetan bezala. Ez da nahikoa, ordea, gizartean hain errotuta dagoen praktika desagerrarazteko. Egunero aholkularitzako berdintasun teknikari Zalóa Basabekin mintzatu gara gaiaz.

| AMAIA ZABALA TOLOSA |

Argazkia: Olaia Juaristi



**Zer da zehazki ablazioa eta zein ablazio mota praktikatzen da Somalian?**

Hainbat ablazio mota daude, ohikoenak zir-kunzisia, erazketa eta infabulazioa dira eta Somalian azken hori egiten da, guztietan krudelena. Infabulazioan kanpoko eta barneko ezpainak moztu eta klitoria erazten

diete, eta gero bagina josi. Soilik zulo txiki bat uzten diete txiza eta hilekoko odola atera dadin. Erditzerakoan, berriro ireki behar izaten diete eta ondoren berriro josi. Hainbat herrialdetan, senarra denboraldi baterako kanpora joaten bada berriro josten diete bagina.



## Zein ondorio ekartzen die honek emakumeei?

Ondorio oso larriak. Ablazioa berez astakeria da, baina horri gehitu behar zaio zein egoeratan eta zein tresna erabiliz praktikatzen den. Harakintza hau anestesiarik gabe egiten da eta Somalian esaterako, arrantza egiteko haria, burdin hariak edo hari begetalak erabiltzen dituzte josteko. Oso arriskutsua da prozesua. Emakume asko ablazioa praktikatzeko unean bertan hiltzen dira odolustuta, beste askok infekzioak harrapatzen dituzte eta egun batzuetara hiltzen dira. Gainera, hilero-koarekin batera izugarritzko minak izaten dituzte eta erditzerakoan ere arazoak sortzen dira eta asko hil edo bizitza osorako infektatuta geratzen dira. Horrez gain, hiesaz kutsatzeko bigarren arrazoi nagusia da ablazioa, praktikatzen den herrialdeetan. Bizitza osorako ondorioak ditu, eta ez soilik ondorio fisikoak, baita psikologikoak ere.

## Zein adinekin egiten zaie ablazioa neskei?

Adina herrialdearen arabera aldatzen da. Balin esaterako 4 urteko haurrei egiten diete baina gainontzeko herrialdeetan normalean 6 urtetik 14 urtera bitarteko neskatok dira, Somalian barne. Haurrak direnez, UNICEFek lan handia egin du gai honen inguruan. Datuek diote egunean 6.000 neskek sufritzen dutela ablazioa.

## Ablazioa Islamarekin lotu ohi da maiz.

Ablazioaren inguruan mito asko zabaldu da eta hori da nagusia, Islamarekin lotzea. Herrialde islamisten herenean praktikatzen da ablazioa eta Koranak ez dio ezer ablazioaren inguruan. Gainera, Egipton esaterako, beste erlijioetakoek ere egiten dute, juduek eta kristau koptoek kasu. K.a. 2000. urtekoak dira ditugun lehen aztarnak. Ikusi baita hain-

bat momiak zirkunzizio modukoa egina zutela. European berriz, XIX. mendean histeria diagnostikatzen zieten emakumeei klitoria erauzten zieten. Ablazioaren atzean emakumeen kontrol sexuala egon da beti.

## Zein arrazoi eta argudio ematen dituzte ablazioaren aldekoek?

Aitzakia nagusia erlijioa da. Estetikarena ere erabiltzen dute, nahiz eta guri harrigarria irudit. Ugalkortasunarekin lotutako sinesmenak ere badira. Herrialde batzuetan, ablazioa emakumeak gizonari eskaintzen dion oparia da. Azken finean, beti ere kontrolaren zentzuan, fidelitatea ziurtatzeko modutzat hartzen da. Milaka aitzakia egon daiteke, modu batera edo bestera konbentzitu behar dituzte emakumeak. Komunitatearen ohorea mantentzea ere bilatzen dute ablazioarekin.

**“Aitzakia nagusia erlijioa da. Estetika ere bada argudio, edo ugalkortasunarekin lotutako sinesmenak. Batzuetan, ablazioa emakumeak gizonari eskaintzen dion oparia da. Komunitatearen ohorea mantentzea ere bilatzen dute”**

zuan, fidelitatea ziurtatzeko modutzat hartzen da. Milaka aitzakia egon daiteke, modu batera edo bestera konbentzitu behar dituzte emakumeak. Komunitatearen ohorea mantentzea ere bilatzen dute ablazioarekin.

## Komunitatetik komunitatera aldatu egiten da ablazioaz duten ikuspegia?

Kontuan hartu behar dugu Afrikako estatuak deskolonizazioaren ondorioz sortu zirela, baina beraiek komunitateka funtzionatzen dute eta komunitate bakoitzak tradizio ezberdinak ditu. Batzuk patrilinealak dira eta gizarte botere guztiak belaunaldiz belaunaldi igarotzen dira. Ezaugarri hauek dituzten gizarteetan ematen da bereziki ablazioa. Afrika hegoaldeko herrialdeetan ez da hainbeste praktikatzen indar gehien duten komunitateak beste tradizio batzuetatik datoze-lako. Somalian, adibidez, bada talde islamiar bat oso zabaldua dagoena eta hauek ablazioaren defendatzaile sutsuak dira.

## Harrigarria da nola duten hain barneraturik tradizio hori, baita emakumeek eurek ere.

**IBERNALO**  
landetxea - jatetxea

Gozatu naturaz: hipika, arrantza, golfa, eskalada, amildegia...

01110 Kanpezu (Araba) - © 945 102 271 / 647 911 484 - [www.iberنالorural.com](http://www.iberنالorural.com)

## ZALOA BASABE

Bai, eta horri aurre egitea da erronkarik nagusia. Adibidez, Somalian Konstituzioa sortu dute eta aurrerapauso handia da legediak ablazioa debekatzea, baina benetako transmisoreak ez dira instituzioak, baizik eta daiak, bertako emaginak. Emakume hauek menopausiara iristen direnean ordura arte izan ez duten boterea lortzen dute eta botere hori beste belaunaldiko emakumeengan agintzeko erabiltzen dute. Nahiz eta harrigarria dirudien, jasan duten zapalkuntzaren ondoren eurak dira neskato gazteei ablazioa egiten dietenak. Genitalen mozketa eguna iritsi baino hilabete lehenago, zer den esplikatzen dio amak, eta duen garrantziaz hitz egiten dio. Etxean gizezkorik ez dagoen egun batean, egun argiz, daiak neskatoaren etxera joaten dira. Emakumeetako bat haurrari ahoa estaltzeaz arduratzen da garrasirik egin ez dezan eta gainontzekoek eskuak eta hankak eusten dizkiote kontra egin ez dezan eta mozketa ez oztotatzeko. Orduan, esperientzia handiena duen emakumeak labana batez moztzen dizkio genitalak. Kontrol sozialerako tresna da nolabait, ablazioa egin ez dieten emakume asko baztertuak izaten direlako eta komunitate txikietan, bazterketak ondorio ekonomiko larriak ekar ditzake, ezin dute komunitatearen ondarerik erabili, adibidez. Ondorioz, emakumeentzat ablazioa integratzeko bide bakarra da.

**Hortaz, legeak debekatzea ez da aski ablazioa desagerrarazteko.**

Ez. Marko normatiboak garrantzitsuak dira, baina azkenean hezkuntza eta sentsibilizazioa landu behar dira. Somaliak hamar urte baino gehiago eman ditu gobernurik gabe, eta gaur egungo gobernuaren eragina oraindik ez da handiegia gizartean. Ablazioa oso sartuta

## Non

**“Somalia, Mali, Sudan, Burkina Faso, Senegal, Gambia, Kenia eta Boli Kostan emakumeen %90ari egiten diote ablazioa. Baina kontuan hartu behar da Afrikako 28 herrialdetan egiten dela eta Asian eta Amerikan ere badirela ekintza hau praktikatzan duten lurraldeak. Hala ere, gaur egun migrazioaren ondorioz asko zabaldu da. Guk Mendebaldekoak, ablazioa gune geografiko jakin batekin lotzeko joera dugu, baina hori ez da horrela. Azken finean sinesmen sistema batekin lotutako praktika da. Espainian azkeneko bi urteetan iritsi dira kasu batzuk Auzitegi Nazionalera, eta Europan eman dira kasuak. Ondorioz, Europako parlamentuak neurriak hartu ditu”.**

dago jada bertako errealitatean, eta legea motz geratzen da.

## Nola zigortzen du legeak?

Somalian oraindik ez da Konstituzioa indarrean jarri eta ikusteko dago legeak izango duen garapena eta zigorraren ezarpena. Herrialde bakoitzean zigorrak ezberdinak dira.

**Orain Konstituzioak debekatzan duenez, hemendik aurrera eskolatan gaia landuko al dute Somalian?**

Beste herrialdetan lantzen da. Batez ere iritzi liderrekin eta irakasleekin egiten dute lan. Eskolak transmisiorako bide garrantzitsua dira eta egia da lan handia egin dela Afrikan eskolen bitartez.

**Zein etorkizun ikusten diozu ablazioari?**

Makutoko protokoloak adierazi zuen lehenbiziko aldiz ablazioa giza eskubideen aurkako dela. Geroztik aurrerapauso handiak eman dira, beti ere bertako emakumeek egingako lanari esker. Mendebaldeko emakumeak hasi ginenerako, haiek jada ibilbide luzea egina zuten. Oso gauza interesgarriak egiten ari dira eta gaur egun badira belaunaldi berriak horren jakitun direnak. Bestalde, aurrerapauso guztien ondoren aurkako indarra etortzen da. Hori dela-eta, uste dut ezer ez dela eman behar lortuzat, gaiaren jarraipena egin behar da, ez soilik ablazioarena, baita emakumeek jasaten duten diskriminazioarena ere. Emakumeen aurkako sistemaz ari gara hitz egiten eta horretan Mendebaldeko emakumeok ere asko daukagu egiteko. Baina baikorra naiz, bertako emakumeak benetan miresgarriak direlako eta konfiantza dudalako haiengan. Dena den, beti ere alar-ma gorri hori piztuta izan behar dugu.

**Ablazioaren aurka borrokatu duten emakume erreferenteak ugari dira.**

Nawal Al-Sa'dawai oso erreferente ona da. Afrikako emakumeen errealitateaz zerbait jakin nahi izan dudanean berarengana jo dut beti. Idazle feminista, komunista eta psikiatra da eta mediku aritzen da gaur egun Egipton. Argi dauka mozketa fisikoa eman aurretik psikologikoa ematen dela eta hori dela landu beharrekoa. 1970eko hamarkadan beste emakume bat nabarmendu zen ablazioaren aurkako borrokan: Efua Darkenoo. Ghanakoa da eta berak ekarri zuen Europara ablazioaren aurkako aldarrikapena. Gobernu Kan-





Ablazioa egiteko erabiltzen diren tresnek eta moduak are arriskutsuago bihurtzen dute prozesua (goian). Eskuineko irudian, Waris Darie idazle eta modelo somaliarra. Ablazioa jasan eta esperientzia kontatu zuen *Dessert flower* liburuan.

poko Erakundeak sortu du, emakumeei alternatiba berriak emateko. Esaterako, oso eza-guna izan zen erakundeak emaginekin aurrera ateratako proiektua. Emagin batzuek ablazioa praktikatzeko tresnak plazan uztea eta ablazioaren aurkako borrokarekin konprometitzea lortu zuten. Bestalde, Waris Dirie idazle eta modelo somaliarrak ere ekarpen inportantea egin zuen, ablazioa jasan eta bere esperientzia publikoki kontatzen lehentarikoa izan baitzen. Ablazioaren aurkako ekintzailea da eta egun bere izena daraman fundazioa du. Ablazioari buruzko *Dessert flower* liburua idatzi zuen eta hori oinarri hartuta Sherry Horman zuzendariak filma egin zuen ondoren.

### Ablazioaz gain zein beste jazarpen sufritzen dute Somaliako emakumeek?

Somalian, seme-alabak izateko baino ez dute balio emakumeek eta eskubide guztiak ukatzen dizkiete. Horretarako, txiki-txikitatik euren buruen kontrolik ez izateko hezten dituzte, debekuak ezarriz eta lotsaraziz. Emakumeak ez dira herritarrak, emakumeak ez



dira subjektuak, emakumeak objektuak dira jaiotzen diren unetik. Merkantzia aldatzeko, familien arteko trukea egiteko, ezkutuko ekonomian lanean aritzeko eta ugalketa lanetarako erabiltzen dituzte. Somaliako emakumeek ez daukate nahimen propioirik, ezta hautatzeko bokaziorik ere. Baina ez zonalde horietan emakumeak horrela jaiotzen direlako edo bereziki otzanak direlako, baizik eta txiki-txikitatik esaneakoak izaten erakusten dietelako eta batez ere askotan alternatibarik ez dutelako. ■



**CAMPOS**

1921-ETIK, CAMPOS-EK  
HEGALUZE-KONTSERBA EGITEN DU  
DENBORAREKIN HARTUTAKO OHITUREI  
ESKER, HEGALUZERIK ONENA BILATZEN  
DU ZUK, GAUR, KALITATEZKO PRODUKTU  
GOZO BATEKIN GOZATZEKO.

Gure webgunean erosi: [www.clubcampos.com](http://www.clubcampos.com)

**AQUARIUM**

Carlos Blasco de Imaz Plaza, 1  
20003 Donostia (Gipuzkoa) • Tel: 943 44 00 99  
[aquariumss@aquariumss.com](mailto:aquariumss@aquariumss.com) • [www.aquariumss.com](http://www.aquariumss.com)

AQUARIUM



DANI BLANCO

**Amaia  
Lasa  
Alegria**



IDAZLEA

## Islama eta feminismoa

MUNDU ZABALEKO erlijio garrantzitsuek –kristautasuna, judaismoa, islama edo hinduismoa; ezagunenak izateagatik garrantzitsuenak agian– oso gaizki tratatu dituzte emakumeak. Era batera edo bestera fede mota desberdin horiek emazteen rola mugiezinezko egituratzat hartu ondoren, gizonaren menpe egotera behartu dituzte.

Sinesmen horien aburuz andrearen eginkizunik eta helbururik nagusia ama izatea da, gizarte patriarkalen arauen arabera heziko dituen haurrengan oinarri harturik, familia patriarkalak betiko iraun dezan gero. Katolizismoaren ustez gainera, birjina izanik ama izatea lortzen bazenuen hobe. Ama Birjina da eliz horren emakumerik goraiatuena.

*Mendebaldeko nazioak sortutako islam-fobia susmagarritik urrundu nahirik begirune handiz hurbildu natzai mugimendu feminista honi. Nor gara gu emazte horiek bizi nahi duten fedea ukatzeko?*

Hori guztia ikusirik, XX. mendeko 60-70eko hamarkadetan berpiztutako feministak –eliza, meskita edota sinagogak alde batera utzirik– ordura arte zeharkatzeke zeuden bide berriak jorratzera abiatu ziren, andreen nortasun berriak asmatuz, eraikiz eta sortuz. Dena den, XXI. mendeko lehenengo hamarkadan islamdar feminismoa izenarekin ezagutzen den talde zabal bat agertu da. Ohiko feministek erantzun desberdinak eman dituzte talde horren aurrean, batzuk eskandalizatu egin dira, beste askok mugimendu mota hori ukatuz erantzun dute.

Ikasle ginelarik, Espainiako historia ikasi genuenoi, musulmanak erasotzaile bezala harturik, zortzirehun urteko birkonkistaren gerla guztiak ikasarazi zizkiguten, azpiko arrazoen berri eman gabe.

Azken urte hauetan komunikabideei esker zera erakutsarazi nahi digute: islama erlijio gaizkilea dela denontzat, emakumeentzat batez ere, beste guztiak aska-

tzaileak izan balira bezala. Egun kontrajarririk ikusten ditugu islama eta emakumea.

Musulman herriak anitzak dira, oso egoera eta prozesu ezberdinetan daude, informazio gutxi daukagu haietaz, baina horiek ez dira herri bakar batean bizi, ez dute berdin pentsatzen.

Mendebaldeko nazioak sortutako islam-fobia susmagarritik urrundu nahirik begirune handiz hurbildu natzai mugimendu feminista horri. Nor gara gu emazte horiek bizi nahi duten fedea ukatzeko?

Talde feminista horrek 2005. urtean egin zuen lehenengo bilera Bartzelonan. Ez dute Korana dagoen lez onartzen, beraiek diotenez, orain indarrean dagoen interpretazioa gizonek bakarrik egindakoa da. Koranaren hermeneutika berri bat egiten dihardute. Erabat gaitzesten dute fundamentalismo erlijioso oro. Bakoitzaren fedea eta sinesmenak ez direla nahitaez alde batera utzi behar diote, emakumeen askatasuna islamaren barruan ere defendatu daitekeela uste dute.

Mugimendu horrek musulman guztien berdintasuna aldarrikatzen du, genero bereizketarik ez du onartzen, bizitza pribatua zein publikoan justizia sozialaren alde jokatzeko du. Asko dira mugimendu hori osatzen duten emakumeak. 2008. urtean *Islamdar feminismoa* liburua argitaratu zuen, bertan ikus dezakegu gehiengoak ikasketadun emakumeak direla, hainbat unibertsitate irakasle bezala lanean dihardutelarik.

Amina Wadud aipatu dezakegu, besteak beste. Amerikako Estatu Batuetan jaioa afroamerikar hau Virginia Commonwealth unibertsitateko irakasle laguntzailea da, ikasketa filosofikoaren eta erlijiosoaren ikuspegi guztiz irekia du. Bere ikerketa lan asko islamaz eta generoaz dira. Homosexualen arteko ezkontzen alde agertu eta beste jarrera aurrerazale ugariren alde dagoelako Ulema eta Iman ofizial askoren gaitzespena bereganatu du.

Feminismoa mugimendu askatzaile, ireki, zabal eta anitza izateko jaio zen. Ez gara nor inor ezesteko. ■







Iñaki Martínez de Luna

SOZIOLOGOA ♦



ITZIAR UGARTEMENDIA

# Hizkuntza-politika berrirako iruzkinak

2012AN KALERATU diren Inkesta Soziolinguistikoak eta Kale Neurketak erakutsi digutenez euskararen erabilerak zenbait eremutan motel egin du gora eta beste batzuetan goia jo. Izan ere, euskara jakin eta maitatzen duten elebidun askok gehiago erabiltzen dute erdara euskara baino. Egungo hizkuntza-politika agortua dago.

Bestalde, 2012an bertan Eusko Jaurlaritzan aldaketa izango dugu, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza (HPS) ere barne. Bi elementu horiek begi-bistan jartzen dituzte hizkuntza-politika biziberritzeko premia zein abagunea.

Hona hemen abiapuntu dugun axioma: HPS berri bat ez da gauza izango hizkuntza-politika eraginkor bat bere kasa abian jartzeko. Ez, ohiko duen jardun-esparrua mugatua delako: euskalgintzako eragile nagusiak HPSren planteamendutik at daudelako; gizarte sektore batzuek hizkuntza-politika gehiegizkotzat eta beste batzuek eznahikotzat jo ohi dutelako; HPSren hizkuntza-politika EAERA mugatu ohi delako.

Horregatik, hizkuntza-politika berriak bere joko-zelaia zabaldu beharra du, modu zuzenean edo zeharka, hiru dimentsio horietan: a) euskalgintzako eragile

nagusiekin elkarlanean jardunez; b) gizarteko sentsibilitate zabal batekin konpromisoak adostuz, aurrera pauso sendoak eta itzulezinak eman ahal izateko; c) EAeko muga administratiboez gainetik beste erakundeekiko harreman zuzenak areagotzeaz gain, beste lurraldeetan ere diharduten euskalgintzako eragileekin batera mugaz gaindiko plana osatuz.

Bigarren iruzkina lehentasunezko xede-taldea zuhurtziaz eta efikazia eta efizientziaren izenean aukeratzea da. Horretarako, galdera honi erantzun egokia bilatu behar zaio: “Zergatik hitz egin ohi dute gehienbat erdaraz euskarari atxikimendua dioten elebidun askok?”. Izan ere, ez dut uste lehentasuna denik euskaratik lekutan bizi direnengan eragiten saiatzea. Besteak beste, hori lortzea zaila eta emaitza eskasekoa litzatekeelako. Aldiz, euskara sarri erabiltzetik gertuen daudenak horretara bultzatzea errazagoa litzateke. Gainera, horiek euskara gehiago erabiltzeak eragin biderkatzaileria izango luke gizarte osoan.

*“Zergatik hitz egin ohi dute gehienbat erdaraz euskarari atxikimendua dioten elebidun askok?” galderari erantzun egokia bilatu behar zaio. Izan ere, ez dut uste lehentasuna denik euskaratik lekutan bizi direnengan eragiten saiatzea*

Iruzkin hauek zentzudun jokatu nahi duen edonori bururatuko zitzaizkionak baino ez dira: eragileen arteko elkarlana eta lehentasun handieneko helburuak finkatzea. ■



DANI BLANCO



Edu Zelaieta



IDAZLEA

## Terapiak

MOTA askotarikoak daude. Batzuk aski zaharrak dira, eta bertze batzuk, berriz, sortu berriak. Nahi izanez gero, zerorrek ere zeurea asma dezakezu, erraza da teknika. Nahikoa da osagai edo kontzeptu bat hautatzea –zeinarekin terapia egingen den– eta gero delako teknika horren etiketari terapia hitza eranstea. Hitz bakarrean bilduta, hobe. Komunikatiboki eraginkorragoa. Salgarriagoa.

Badira urte batzuk Bigarren Hezkuntzan aritu nintzela irakasle. Gogoan dut, bertzeak bertze, nola eman zidan arreta ohartzeak 14-15 urte inguruko ikasleek hitzetik hortzera erabiltzen zutela “terapia”

solasa beren artean. Hala, lagunarteko giroan, terapia egin beharraz aritzen ziren gattetxoak, txantxetan-edo.

Gora egin omen dute terapia mota guztiek azkenaldian. Krisi madarikatuan ikusi dute askok joera honen jatorria: zenbat eta itoago egon, orduan eta arnasbide gehiago bilatzen ditugu pertsonok.

Orain, *Ikeaterapiaren* iragarkia ikusita, orduko ikasle haien logika etorri zait bisitan gogora, sei urte geroago: aspalditik zegoen eri gizarte hau; aspalditik zebiltzan gaitzaren sintomak gure artean. ■





## HEMEROTEKA

Angela Merkel eta Niccolò Machiavelli oso desberdinak ez direla uste du Ulrich Beck soziologo alemaniarrek. Alemaniako kantzeliariaren agintzeko metodoa aztertu ondoren, *merkiavellismoa* lau gako nagusitan oinarritzen dela ebatzi du.

## Merkiavelliren indarra: Merkelen zalantza Europaren krisian

**Ulrich Beck** ♦ MUNICHEKO UNIBERTSITATEKO IRAKASLEA

ANGELA MERKEL Alemaniako kantzalaria koroarik gabeko Europako erregina ikusten dute askok. Dautan boterearen oinarrian arakutzen badugu, bere eraginkortasunaren ezaugarri bereizgarri bat antzeman-godu: bere dohain nabarmenena gaitasun taktiko bat da, makiavelikotzat har litekeena. Merkelen eta Machiavelliren arteko afinitate politikoa –nik Merkiavelli modelo gisa ulertzen dudana– lau osagaitan oinarrituta dago.

Lehena, Merkelek bere burua kokatu du Europaren eraikitzaileen eta nazio-estatuaren defendatzaile ortodoxoen artean, bando bat edo bestea hautatu gabe. Horren ordez, Merkelek lotu egiten ditu Alemaniaren borondatea herrialde zordunei kreditua emateko eta herrialde zordunen borondatea Alemaniaren egonkortasun politikaren baldintzak betetzeko. Hau da Merkiavelliren lehen printzipioa: diru alemaniarrekin herrialde zordunei laguntzeari buruz, bere posizioa ez da Bai edo Ez argia, Bai eta Ez argia baizik.

Bigarrena, Merkiavelliren boterea zentzutasunean oinarritzen da, ezer ez egiteko desioan. Nahita zalantza egitearen arte hori, axolagabetasunaren, Europa errefusatzaren eta Europarekin engaiaztaren arteko postura hori, Alemaniaren jarreraren sustraletan dago. Zalantza presio egiteko modu gisa, hori da Merkiavelliren metodoa. Hertsadura hori ez da Alemaniako diruaren sarrera erasokorra, kontrakoa baizik. Kreditua erretiratu, atzeratu edo ukatzearen mehatxua da. Patu bakarra da okerragoa diru alemaniarrez

gainezka egitea baino, diru alemaniarrez gainezka ez egitea.

Hirugarrena, euroa eta Europar Batasuna salbatzeko diseinatutako neurri guztiek pasa behar dute proba bat: barne-politiketara egokitu behar dute, hau da, Alemaniaren interesak eta Merkelen posizioa bultzatu behar dituzte. Zentzu horretan ere Merkelek erakutsi du Merkiavelliren ikasle azkarra dela. Hark *Printzean* zera galdetzen zuen: “Zer da hobe, maitatua izatea ala herria zure beldur izatea?”.

Haren erantzuna da, “maitasuna eta beldurra eduki behar dituzu batera, baina hori zaila denez, askoz seguruagoa da herria zure beldur izatea, bietako batek huts egingo badu”. Atzerrian Merkelen beldur dira, etxean maitatua izan beharko luke. Neoliberalismo basatia kanpoko munduarentzat, kontsentsua eta ukitu sozialdemokrata bat herrialde barruan.

Laugarrena, mantra alemaniarrek dio: aurreztu, aurreztu, aurreztu, egonkortasunaren mesedetan. Alta, horrek berehala dakar pentsioetan, hezkuntzan, ikerkuntzan, azpiegituretan eta abarretan muturreko murrizketak egitea.

Merkiavelli metodoa pixkanaka bere mugetaraino irits liteke. Azken finean, Alemaniaren zorroztasun politikak oraindik ez du inolako arrakastarik lortu –izatez, justu kontrakoa–. Edozein modutan, Alemaniak aurrean daukan galdera Europaren existentzia edo existentzia eza da. Alemania indartsuegi bihurtu da erabakirik ez hartzeko luxuaz gozatzeko. ■



## BERTSO BERRIAK

Miren  
Amuriza  
Plaza



XDZ

♦  
**Doinua:** Leiho ertzetik entzun dezaket.

## Kaleratzeak

Imajinatu familia bat egin duena eztanda: aita fabrikari behin ta birritan kaleratua izan da, amak oraindik itxaropentsu Inem-en hartu du txanda, alperreko propaganda, agortu baita demanda. Urratsez urrats gainditu ezinez hipoteka baten langa, kale gorrira bota dituzte ostikada bat emanda.

Seme gazteak galdetu die “Zer gertatu zaigu baina?”, amak malkotan “Bankuak bota egin gaitik alajaina! Itzuli ezin genialagoa hipotekaren ordaina, Seme, ez haut nahi engaina, zorrek hartu ditek gaina. Nahiz ta jokoan jartzen diaten langile soilon oraina, gaur ere askok gure kontura edango ditek txanpaina”.


Zenbat despido, zenbat etxe huts, eta zenbat hipoteka, langabetuen zerrendak daude jada goraino beteta... Ta bitartean bankuek egin nahi digute lapurreta, erreskatea gordeta, haziz doa desoreka. Mugitu egin beharko dugu honi emateko buelta, bankuengandik ez gaitu inork erreskatatuko eta. ■



EUSKAL DANTZAREN ADIERAZPENA

# Aldarrikapen publikoa, etxe barruko batasuna sendotzeko

Dantza tradizionalaren sektoreak Euskal Dantzaren Adierazpena izeneko manifestua aurkeztu zuen apirillean. Xede nagusia barne kohesioa indartzea badu ere, agiriak mezu garrantzitsua bidaltzen dio euskal jendarteari eta, haiek aipatu gabe, erakunde publikoei: dantza tradizionalak denon zaintza behar du, eta horrekin batera premiazko zenbait neurri.



| UNAI BREA |

GEHIENBAT Gernika iltzatu zaigu memorian, baina jakina da beste euskal hiri batzuek ere erruz jasan zutela bonben infernua 36ko Gerran. Eibar, esaterako, frontearen muga izan zen zazpi hilabetez; sistematikoki, lehorrez zein airez, bonbardatua izan eta gero, euskal armagintzaren hiriburuak Gernikak baino egun bat lehenago nozitu zituen abizio alemaniar-italiarraren izugarrikeriak.

Gertakari lazgarrioren 75. urteurrena zela eta, Eibarko gizarte eta kultur eragileek, nor bere arloan, hainbat jarduera prestatu zuten iragan apirillean. Hartara, Kezka dantza taldeari eta dantzan.com elkarteari iruditu zitzaizkien gerraren gordinkerietatik irakaspen bat ateratzea bazegoela: “Badi-rudi dantza sektorean ez gara ondo konpontzen; desadostasunak daude, nor bere kasa dabil... Milaka hildakorekin konparatuta, huskeria da hori. Beti bat ez etorri arren, oinarri-oinarrian ados gaude”, dio Oier Araolazak.

**Dantza tradizionalaren sektoreak premiazko zatitu dokumentazio zentro bat eratzea, formazioa egituratzea eta ikerkuntza sistematizatzea. Aspaldiko gabeziak daude hiru alorretan**

Adostasun hori nolabait gorpuztea bururatu zitzaizkien, eta emaitza Euskal Dantzaren Adierazpena izan zen. Apirilaren 21ean aurkeztu zuten manifestua Eibarko Udaletxean, eta orduantxe jaso zituen lehenbiziko atxikimenduak, sinadura bitartez. Ondoren, soka-dantza egin zuten Euskal Herri osotik hara bildutakoek. Zer hobe, eskuak elkarri ematez ari gara.

**Arazo zaharrak**

Batasun nahiak sorrarazi du Euskal Dantzaren Adierazpena. Dantza tradizionala esparru atomizatua da, eta lidergo argirik ez du, ez eta erakundeen aurreko ordezkartza bakarra. Hala aitortzen du Xabier Mendizabal Euskal Dantzarien Biltzarreko, alegia, ustez lidergo hori legokiokeen elkarteko presidentek. Helburu nagusia sektorea oinarritzeko ideia batzuen inguruan trinkotzea izanik, momentuz horretan dihardute batez ere mani-





FELIPE LOYOLA-CC BY SA



FELIX MORQUECHO-CC BY SA



INAKI ZUGASTI-CC BY SA

Apirilaren 21ean aurkeztu zen jende aurrean Euskal Dantzaren Adierazpena, Eibarko Udaletxean egindako ekitaldian, dantza munduko ordezkari eta zabalaren parte-hartzearekin. Aitzindariak elkarte zuberotarreko Jean Bordaxar (goiko eta ezkerreko argazkian) izan zen izenpetzen lehena. Sinadura bilketak jarraitu egiten du; dantzan.com webgunean dago horretarako aukera.

inon ageri, baina mezuak hartzaile jakinak ditu, ikusiko dugunez.

## Etengabe desagertzen ari den ondarea

Euskal Dantzaren Adierazpenak esaldi horrekin nabarmendu nahi du dokumentazio zentro baten garrantzia. Aspalditik dator historia: 1996-97 urteetan, Eusko Jaurlaritzak inkesta egin zuen kultur arlo guztietan, behar handienak zeintzuk ziren jakin guran, eta dantza tradizionalak eskatu ziona gutxi gorabehera Adierazpenean jasotako gauza berak ziren. Tartean, dokumentazio zentroa. Euskal Kulturaren Planak (2004), azkenik, gaiari buruzko txosten bat egitea aurreikusi zuen. Ez zen dantza munduko ordezkariak nahi zutena, baina zerbait bazen. Txostena Eusko Ikaskuntzak egin zuen, eta Oier Araolazak gogoratzen duenez, ondorio argia eman zuen: premiazko ekintzak behar ziren, dantzarekin lotutako ondare asko oso baldintza txarretan baitzegoen.

Orduko Jaurlaritzak premiari erantzuteko asmoa izan bazuen ez dugu jakingo, urteak joan urteak etorri 2009ko gobernu aldaketa gertatu baitzen. Legegintzaldi erdia ez atzera eta ez aurrera igaro eta gero –Xabier Mendizabalek salatzen duenez–, azkenik argi geratu

festuaren sustatzaileek, “etxe” barruan ahalik eta adostasunik zabalaren bila. Arrakastaz, bai Mendizabalek bai Oier Araolazak diotenez. Geroago etorriko dira jendarteratzeko ahalegin serioagoak.

Nolanahi, Adierazpenak agerian uzten ditu dantza tradizionalaren beste gabezia eta behar batzuk. “Kulturaren gainerako esparruetan gauzak antolatuago daude”, azaldu du Mendizabalek, “dantzaren barruan ere klasikoak, garaikideak... badaukate egitura bat, irakasle prestatuak, curriculum”. EDBko presidentearen hitzetan, dantza tradizionalak askoz bide amateur eta militanteagoa urratu izan du, eta horrek alde onak baditu, baina ondorioetako bat da sektorea egitura sendoen beharrea dela. Aspaldiko ahuldadeez ari gara. Esaterako: orain sei urte, aldizkari honetan bertan, (ikus *Etorkizuna dantzan eta zalan dantzan* erreportajea, ARGIA 2.045 zbkia.) gutxi gorabehera arazo berberak izan genituen mintzagai, eta protagonista bereberekin gainera.

Dantza tradizionalak nolako bultzada behar duen ederki zehazten du Euskal Dantzaren Adierazpenak. Hiru puntuko aldarria da; lehen biak orokor samarrak dira, eta hirugarrenean, berriz, premiazko zat jotzen dira “ezagutza, transmisioa eta hedapena sustatzeko neurriak”. Neurri horietako hiru, beharrezkoenak, aipatzen ditu agiriak: dokumentazio zentro publiko bat sortzea, formazioa egituratzea eta ikerketa sistematizatzea. “Eskatu” hitza ez da

**Barne mailako kohesioa indartzeko ari dira baliatzen Adierazpena batez ere, baina nolanahi, manifestuak agerian uzten ditu dantzaren beharrak, eta eskari zehatzak egiten dizkio administrazioari**

## Ikerkuntza basamortuan galduta

ADIBIDE ZEHATZA erabili du Oier Araolazak dantza tradizionalaren ikerkuntza zer nolako basamortuan galduta dabilen adierazteko: “Topikoetatik bizi gara. Ez da posible urtero agertzea euskal ballet izar bat esanez balleta eta euskal dantza lotuta daudela, dantza klasikoan pas de basque erabiltzen delako. Esaten ari gara euskal dantza dela klasikoaren ama, eta ez gara gai izan 40 urtean ikertzaile bat Parisera bidaltzeko, Louis XIV.aren gorteko dantza akademiara joan ziren hogeitazantzarri lapurtarrekin zer gertatu zen arakatzera. Zer ikasi zuten? Beraiek zerbait irakatsi zuten? Ez daukagu ideiarik ere”.

zen Kultura Sail berriak ez zeukala asmorik dokumentazio biltegi fisiko bat sortzeko, eta indarrak digitalizaziora bideratu zituen. Gero, ezta indarrak ere. Kulturaren Euskal Kontseiluak 2012ko proiektu estrategikoei eskaintzen dion txostenean irakur daitekeenez, dantzaren alorreko dokumentazio bilketa eta digitalizazioa gauzatzea aurrekontua lortzearen menpe dago. Krisi garaian beste lehentasun batzuk daude. Horregatik hain zuzen, krisiagatik, Xabier Mendizabalek ez dauka itxaropen handirik EAEko gobernu aldaketak ekar dezakeenarekin, Kultura Sail berriak, zerbaiti heltzekotan, lehenengo urratsa dokumentazio zentroa behingoz bideratzea izango litzakeela uste badu ere.

### Formazio falta, gaitz handienetakoa

Dantza tradizionalaren munduan izan diren desadostasun eta ezinikusien arrazoi nagusietakoa formazio falta dela pentsatzen du Oier Araolazak, horra norainoko garrantzia daukan beretzat gaiak. Hala ere, adostasun zabala dago sektorean euskal dantza irakasle batek eduki behar lukeen curriculumaz. Izan ere, osatzen hasita dago curriculum hori, baina Araolazaren iritziz ez du zentzurik hura garatzen jarraitzeak aurrez beste oinarri batzuk ipini gabe: ikasketa plan zehatza, ikasketen maila, kreditu kopurua... Administrazioak heldu beharreko gaia hori ere. Ondo gogoan hartuta, beti ere, administrazioa diogunean Eusko Jaurlaritzaz eta EAEko foru aldundiez ari garela, Euskal Herriko gainerako erakundec-

atik deus ezin baitaiteke itxaron gaur-gaurkoz, Akitaniako Erregioak Iparraldeko Dantzarien Biltzarrari ematen dizkion sos batzuez harago.

### Ikerkuntza, haize berri faltan

Iñaki Gorizelaia EHUko errektorea izan zen apirilean egindako ekitaldi hartan Adierazpena izenpetu zuen lehenengoetakoa, ez unibertsi-tatearen izenenean, bere herriko dantza taldearenean baizik. Alta, Oier Araolazak nahi luke EHUK arreta handiagoa eskaintzea dantza tradizionalari. Edo arreta, besterik gabe. “Gaia serioa da; orain 40 urteko liburuekin gabiltza”, kexu da eibartarra. Formazio espezifikorik gabeko ikertzaile belaunaldi emankorra izan zen Euskal Herrian, baina ez du segidarik izan, are gutxiago mundu akademikoan. “Argi daukat EHUK euskal dantzari buruzko sail bat eduki beharko lukeela, eta ekimena ez badu arlo akademikoak sortzen, erakundeek erraz sustatu dezakete. Zergatik ez da egiten? Dantzaren alorrak ez daukalako lobby izateko gaitasunik”. Borondatea duenak ez du dirurik, ezta dirua duena konbentzitzeko ahalmenik ere. “Baina gero –amorratzen da Araolaza– dantza tradizionala gure sinbolo modura aurkezten dugu”. ■



# Gabriel Aresti

euskaltegia eta akademia

## Neguko Barnetegiak

Prezio bereziak langabeentzat

HABEko azterketetarako ahozkoak prestatzeko Bilbon eta Bakaikun

<p><b>Barnetegiak</b></p> <p><b>Azaroaren</b> - 12tik 16ra - 19tik 23ra</p> <p><b>Abenduaren</b> - 3tik 9ra - 5etik (afaria) 9ra - 5etik (afaria) 12ra</p>	<p><b>Asteburuak</b></p> <p><b>Azaroaren</b> - 9tik 11ra - 16tik 18ra - 23tik 25era - 30etik abenduaren 2ra</p>
--	---

San Bizente 2 - 4.a - Bilbo - Tel: 94 423 75 91 - bulegoa@gabrielaresti.com

[www.gabrielaresti.com](http://www.gabrielaresti.com)



# ARGIA 2013ko egutegia

## ARGIA astekariko pasarteak

- Zientzia
- Deabruaren abokatua
- Denboraren makina
- Txistek
- Bertsoak

## Santuak

Euskal izendegia

Eguzkia, ilargia eta mareak

ARGIAko eskaintza bereziak

EGURREZKO  
TAULA

50€

EGUTEGIA  
opari

EGUTEGIA

9€

Salgai  
dagoeneko!

BURNIZKO  
EUSKARRIA

5€

# «BEZaren igoerak kalte handia egin digu denoi»

BAD, Bilbo Antzerkia Dantza jaialdi garaikidean murgilduta harrapatu genuen Alicia Otxandategi. Hiru urte daramatza programatzaile lanetan. Aurten XIV. edizioa bete duen jaialdi horren arduraduna ez ezik, Bilboko Zirkuituaren koordinatzailea ere bada.

| MYRIAM GARZIA |

**BAD jaialdian, antzerki eta dantza garaikideko proposamen ausartenak ikusi ahal izan ditugu. Termometroa edo erakusleihoa da BAD?**

Jaialdiaren helburua abangoardia erakustea izan da hasieratik. 14 urteotan aldaketa handiak izan ditu, bai aretoei dagokienez, baita sormen eta konpainiei dagokienez ere. Jaialdiak, apurka, ezagupen handia izan du, Hego Euskal Herrian antzerki eta dantza garaikideko jaialdi bakarra delako. Hemengo zein kanpokoentzat, erreferentzia da BAD jaialdia.

**Publikoak harrera ona egin dizue, betiko lez.**

14 urteotan publiko finkoa eta fidela lortu dugu. Gure publiko propioa daukagu, beti lagundu digu. Horrez gain, beste publiko mota bat erakartzen saiatu gara, leku berriak aurkeztuz. Bilbo Arte izan da aurtengo nobedadea, leku berriei dagokienez, arte eszeniko garaikideak ikustentzunezko arteetatik eta plastikoe-tatik oso hurbil daudela ikusi dugu. Arte eszenikoek diziplina asko nahasten dituzte. Antzerkiak zein dantzak, harreman zuzena dute multimediarekin eta teknologiekin. Aniztasun hori gurera ekartzen saiatu izan gara beti.

Hiriko hainbat areto inplikatzeko saiatu gara, interesgarria iruditzen zaigu bakoitzak egiten duen ekarpena.

**Euskarazko antzerki gutxi programatu da aurtengo edizioan.**

Euskal antzerkiak badu bere publiko espezifikoa, eta hainbat proposamen izan dira euskaraz. Metrokoadroka taldeak oraindik sortze prozesuan dagoen lana aurkeztu digu, *Pozā: Zergatik dantzatzeko dute bosnietarrek?* antzezlanaren aurrerapen bat. Haiekin batera, Anakrusa

eta Dejabu Panpin Laborategia izan dira lanean, euskal munduan jada ezagunak diren sortzaileak eta egia esan jende ugari erakarri zuten emanaldira.

Bestetik, Maider Yabarren *Buruñ Bebera* lana ikusi ahal izan dugu. Erdaraz egina da, baina BADen euskaraz egitea erabaki genuen, eta primeran bete zuen aretoa. Bea Setienen bi emanaldi izan ziren, bata gaztelera eta bigarrena euskaraz, edukiera mugatua, 40 pertsona emanaldi bakoitzean, eta kasu bietan bete zen. El Canto de la Cabra-ren lana ere aipagarria da, euskaraz eta gaztelaniaz ikusi ahal izan dugu. Gainera, testuaren itzulpenak nahikotxo lan eman du, oso testu poetikoa delako. Interesgarria izan da euskara ezagutzen dugunotzat lan hori ikustea.

Dantza garaikidea publiko orokorrari zuzentzea ez da ohikoa, aukera gutxi ditu diziplina honek.

Bilboko La Fundicion aretoak soilik eskaintzen digu dantza garaikidea urte osoan ikusteko programazioa. Horregatik, kanpoko dantzariak ekartzen saiatzen gara. Publiko zabalarentzat lan zailak izan dira, koreografia eta dantza ezagutzen dutenentzat dira aproposago, baina aukerak merezi izan du.

Bitxia da baina dantza garaikidean talde gehienak behin-behinekoak dira, proiektu edota pieza baten ganean eratzeko dira, eta gero ez dute iraunkortasunik. Dantzariak ohituta daude lan molde horretara. Antzerkia lantzen dutenek, berriz, biltze lana egiten dute, euren inguruko sortzaileak antzezlan baten inguruan elkartu. Desberdinak dira mundu biak.

**“Antzezleei eta dantzariari esker onak eman behar zaizkie, krisi egoera latz honetan guztiaren gaintik, lanean jarraitzen baitute”**





### Krisiaren onurak? Irudimena erabili behar?

Baliteke. Hala ere, bai antzezleei, bai dantzariari ere, esker onak eman behar zaizkie. Bizi dugun krisi egoera latz honetan, batez ere, arte bizietan ematen ari dena, guztiaren gaitetik lanean jarraitzen baitute, gainera kalitatezko lanak eta ekoizpenak aurkeztuz.

### Zer diozu arte bizietako BEZaren igoeraz?

Kalte handia egin digu denoi. Niretzat oso gauza hurbila da, askotan aurrekontuak eta kontratuak itxita daudelako... Horrek lana areagotzen du, BEZa noren bizkar izango den negoziatu behar da eta argi dago antzerki eta dantza talde askok ezin diotela igoera horri aurre egin. BADI dagokionez, nahiz eta aurtengoak aurrekontu murriztua izan, kalitateari eusten saiatu gara, eta sortzaileen lan baldintzetan ahalik eta gutxien eragiten.

### Bilboko Zirkuituaren arduraduna ere bazara. Antzerkia Bilboko auzoetara hurbiltzeko ekimena da. Kontzientziazio lana al da?

Kaptazio lana dela esango nuke. Helburu asko ditu: alde batetik, antzerkia eta dantza Bilboko hirigunetik ateratzea, barrutietan eta udaltegietako aretoetan ikusi ahal izatea.

**“Hangoen eta hemengoan harremanak estutzea, zuzendari, programatzaile eta kultur eragileei dagokigun lana da”.**

Sarrera doan da eta jendea errezago hurbiltzen da. Bestalde, konpainia amateur edo sasiprofesionalei ere aukera ematen zaie. Hiru hilabetero egiten da programazioa, eta normalean formatu txikiko lanak izaten dira. Lan baldintza duinak eskaintzen dizkiegu, eta Bilboko auzoetan aritzeko aukera.

### Bilboeszena Antzerki Baliabideetarako gunea ere zuzentzen duzu. Zeintzuk dira aurtengo zifrak?

Oso emaitza onak ditugu, batez ere ikastaro eta mintegietan. Erdarazko taldeetan jendea zain daukagu ez direlako denak sartzen, eta euskarazkoak ere bete dira. Gauzak nola dauden kontuan hartuta, ez da batere txarra. Prezioak oso merkeak dira, eta krisiarekin, beste eskola batzuk garestiagoak izanik, antzeman da aurrematrikulazioan. Bilboeszena 2004an zabaldu zen eta ordutik bazkideak lortu, datu basea egin, eta antzerki eta dantza inguruko jendeak ezagutzera eman ditu.

Eszenika, Bilbon egitear dagoen Goi Mailako Antzerki Eskolaren proiektua hor dago. Euskal Aktoreen Batasunak askotan agertu du haserrea, Eusko Jaurlaritzako agintaldia agortu da eta ez diote heldu proiektuari, nahiz eta aurretik hitzartuta egon.

### Erakundeek ez ikusiarena egiten dute askotan. Egokia litzateke antzerki edo dantza sariketa bat izatea, literaturan bezala?

Gure sortzaileek errekonozimendua behar dute, batez ere kanpora ateratzeko, maila gero eta hobea izanda ere, zaila egiten zaielako. Kataluniako sortzaile asko datoz hona, eta hemengo antzezleak ere joaten dira hara. Hangoen eta hemengoan harremanak estutzea, zuzendari, programatzaile eta kultur eragileei dagokigun lana da. Aurtengo BAD jaialdian Kataluniako eta Madrileko kritikariak eta programatzaileak gonbidatu ditugu.

### Zu zeu hainbat arlotan ari den programatzailea zara, zein izan behar du zuen eginkizunak? Publikoaren eta sortzaileen arteko zubi lana?

Egia esan, gure antzerki panorama zabala eta anitza da, antzerki talde ugari dago eta jaialdi gutxi egiten dira, BAD bakarrenetako bat da. Lan mardula da, egia esan, antzezlan oso onak baitaude... Zerbait borobila topatu behar duzu, hemengoak eta kanpokoak balantzan jarri behar dituzu, aurrekontuak gogoan hartu, azpiegitura edo espazio beharrak neurtu, hori gutzia kontuan izan behar da. Sortzaileekiko harremana ere oso garrantzitsua da. Jaialdira hurbildu diren sortzaile, profesional eta ikusleen arteko harremana estutzea ere bada gure arloa. ■





**Helduen literatura**

*Barku madarikatua* Emilio Salgari  
Sebe Callejaren bertsioa. Itzultzailea: Mitxel Murua. Alberdania, 2012.

## Bere abenturen pertsonaia bilakatu zen idazlea

BIDAI HONETAN abiatzea Lurra atzean uztea da. Eta orrialdeetan aurrera egin ahala, Lurretik geroz eta urrunago izanik, marinel tradizioen ur sakonenetan murgilduz joanen gara.

Sebe Callejaren *Barku madarikatua* izeneko bertsio honek, *La nouvelle marinaresche di Maestro Catrame* (1894) liburuan argitaratu ziren idazle italiarraren hamabi ipuin biltzen ditu. Izenburuak iradokitzen duen bezala itsasoari lotutako abenturazko istorioak dira. Galipot ezizenaz ezaguna den eskola zaharreko marinel batek, bere tripulazioko gazte ezjakinei gauero kontatuko dizkien bizipen harrigarriak. Gau batez, Galipoteh huts egin zion bere postuari barkuko sotoan erabat mozkor izateagatik. Falta larri horren aurrean, kapitainak gauero istorio bat kontatzera zigortu zuen. Itsaso gorriko portuetatik Bonbaiko kaiarako bidaia guztian zehar, gauero hitzordua ezarri digute; ilunabarrean, gainerako marinelekin batera, Galipoten istorioak entzutera gonbidatua da irakurlea. Hamabi gau, hamabi ipuin. Zazpi itsasoetan barrena, adin zehaztu gabeko gizonak bizi izandako abenturek eta hauen kontaketa prozesuek eratzen dute liburuaren hari narratiboa. Itsasgizon tradizionalaren irudi prototipiko gisa, Galipot sineskerietara emana da, eta itsasoko fenomeno naturalak azaltzeko istorio fantastikoen beharra dauka. Bere kapitainak berriz, eredu zientifikoaren hoztasuna irudikatuz, burlati ekingo dio aitonaren kontakizun tradizionalak entzuteari.

Idatziz jaso diren ahozko kondairetan gertatu bezala, irakurle-entzule gara aldi berean. Eta biak ezinbestekoak dira, paktu narratiboa behar bezala suertatu dadin. Narrazioaren bat-batekotasunera biltzen gara; elkarrizketen ugaritasunak, memoriari errazten dizkieten egitura formularrak, etenaldiak, ustekabeko jausiak. Funtsean, oralitateari lotzen zaizkion elementuek, irakurketa erraztu eta arindu egiten dute. Hala ere, gustu kontuei helduz, tradizio zehatz bati sustraitutako sineskeria eta errituen gainean erakitzen diren istorioak ez ditut asko maite. Irakurtzen arinak izanda ere aspertu egiten naute. Barku fantasmak, hildakoen arima erratuak, sirenak, giza haragia maite duten arratoiak, Neptunoren haserrealdiari egokitzen zaizkion enbatak, itsasoko espirituak, ez dira niretzat gairik erakargarrienak baina, egia da, maite duenarentzat, nabigazioaren tradizioa josten duten hainbat elezhar kuriosoa biltzen direla.

Erromantizismo puruena maite dutenentzat liburu aproposa. Gainerakoei berriz, Emilio Salgariren biografia sinopsi txiki bat irakurtzea gomendatzen diet, harena bai nahi gabeko abentura erromantiko zorigaitza. ■

**Saioa Ruiz Gonzalez**



## 1609ko auziak Lapurdin: herri baten suntsitzea, sorginkeriaren aitzakian


DUELA LAU MENDE PASATSU, sorginkeriaren aitzakian gertatu krimenak aztertu ditu Lapurdi 1609-2009 elkarteak. Izen handiak ageri dira testuen izenpeetan: Jean-Louis Davant, Beñat Oihartzabal, Aitzpea Leizaola, Auxtin Zamora, Xarles Bidegain, Juan Inazio Hartsuaga, Peio Chipi, Eli Zubillaga... Baita izenburu iradokorrak ere, sorginkeria prozesuez bete-betea mintzo direnez gain. Esate baterako, *Senpereko etxeen izenak*. Edo *Euskararen geroa: utopia egingarria* eta *Emaxteak, liboa eta beren historia*. Hainbat artikulua frantsesez idatziaz dira, eta liburuaren atzealdean argazkiak eta abestiak datoz ilustragarri.

Pierre de Lancre juje zitalak ehunka lapurtar ehizatu zituen herriz herri, etxez etxe, emakumezkoak gehientsuenak. Torturatu, eta nahi zuen guztia aitorrarazi ondoren, hiltzera kondenatu zituen. Bizirik erre zituzten Senperen.

Pierre de Lancre bezalako epaileak ez ziren Inkisiziokoak, juje zibilak baizik, errege Henri IVak botere guztiekin igorriak. Epaileok Erregeren justizia Inkisizioa bera baino efektiboagoa, azkarra, beldurgarriagoa zela frogatu nahi zuten. "Sorginen aurkako auzi laidogarrari haiek urrun iduri zaizkigu —dio Davantek sarrerako pasarte batean—. Alta bada orain ere gertatzen dira, haatik surik piztu gabe. Euskal Herrian bereziki gertatzen dira maiz, Frantzia eta Espainiako Estatuek gure hezi eta ezabatzerik ez baitute oraino erdietsi (...) Beharrik burua gogor dugu, eta ez gara amore ematekotan de Lancre berrien aitzinean eta betiko presidenterregeen aurrean". ■

*1906ko auziak, Lapurdin.*

Jean-Louis Davant, Mixel Mendiboure, Christine Bessonart, Claude Labat, Maïté Lafourcade...



Lapurdi 1609-2009 elkarteak.





Vol. I. Glaukoma  
Bonberenea Ekintzak, 2012.  
Iraupena: 2'19". Biniloa, CDa: 10 euro.  
CDa: 8 euro, 2012.

## Reggaea, rapa, eta gozatzera!

AZKEN ALDIAN ezagutu dudan talde interesgarrienetako bat da Glaukoma. Reggae eta rap musika estiloak modu naturalean nahasten ditu. Modu simple batean, erraz, zuzen, freskotasun handiz eta batere lotsarik gabe. Bere doinuek kutsatuta, gorputza berehala mugitzen hasten zaigu, alai. Ongi pasatzen ari garela konturatzen gara *Vol.1* diskoa entzunez gero, eta, are gehiago, beren jendaurreko emanaldiren batean baldin bagaude.

Doinuak eta erritmoak ederki lotzen dituzte, gehiegizko apaindurarik gabe eta soberan egon litezkeen xehetasunetan galdu gabe. Taldekideen etorria handia baita. Emanaldietan eroso aritzen dira, umorez, eta kantuak jotzen ederki pasatzen ari direla transmititzen dute. Gozatzera ateratzen direla nabarmena da.

CD eta LP euskarrietan kaleratu dute beren lehen disko luzea. Zazpi abestiz osaturik dago. Reggaea eta rapa nagusi dira kantuetan, eta dancehall, raggamuffin eta roots ukituak ere suma daitezke. «Azal zuridun beltzak» baitira Glaukomako partaideak, haien hitzetan: «Reggaea da erregina eta rapa erregea». Besteak beste, Damian Marley, Alborosie eta Bad Sound System taldeak atsegin dituzte, Glaukomakoek beraiek aitortuta.

Euskaraz, ingelesez eta gazteleraz mintzatzen dira kantuetan. Hiru hizkuntzak erraz nahasten dituzte hitzetan eta errimetan, naturaltasunez. Aldarria transmititzen dute kantu batzuetan, eta beste batzuetan haien barrura begiratu eta kezketan, sentipenetan eta emozioetan murgiltzen dira. «Zerbait baliagarria» esaten saiatzen dira, «txorakeriarik» esan gabe. Tradizioak, sexuen arteko desber-

dintasunak, marihuana, komunikabideak eta beste hainbat gairen inguruan mintzo dira.

Tolosan (Gipuzkoa) sortu eta garatzen ari den taldea da Glaukoma. 2010eko maiatzaren 15ean egin zuten beren lehen jendaurreko saioa, Tolosako Otsabi elkarteetan. *Vol.1* diskoa kaleratu aurretik, hainbat jendaurreko emanaldi egin dituzte, eta baita grabazio batzuk ere: Tolosako Izaskun auzoko festetako abestia, eta *Sputnik 11* bildumako bi kantu.

Tolosakoak, Donostiakoak eta Irungoak dira Glaukoma taldeko kideak. Gazteak, hogeita gutxi urte besterik ez baitituzte. Pablo Rubio (bateria) irundarra da, Jokin Albisua eta Iker Pando gitarra jotzaileak donostiarrak dira, eta Asier Arandia (baxua) eta Juantxo Arakama (ahotsa) tolosarrak.

Bi gitarra, baxu bat, bateria bat eta ahotsa besterik ez dute behar kantuak ederki jotzeko, nahiz eta hainbat saiotan Ibarra (Gipuzkoa) lagun bat, Jon Altuna (Lain, Dolce & Tangana) haiekin aritzen den teklatuak jotzen. Jon Altuna bera diskoaren grabazioan aritu da, eta Glaukomako beste hainbat lagun ere bai: Roman Goenaga (ahotsa), Aitzol Moreno (tronboia), Ander Altuna (tronpeta), Xabier Beldarrain (perkusioa), Miguel Telleria (ahotsa), Xabier Garcia (txilibitua) eta Stepi Selektah (*Not paradise* kantuen musika konposatzen lagundu die).

Karlos Osinaga arduratu da grabazioaz, nahasketez eta masterizazioaz, eta oso lan txukuna egin du, kantuak garbi, ozen eta gozo-gozo entzuten baitira. ■

Joxi Ubeda



## Emel Mathlouthi kantari tunisiarrak kontzertua eskainiko du Bilbon

Zentsura at! jaialdiko azken kontzertua eskainiko du Emel Mathlouthi, azaroaren 18an, Bilboko BBK Aretoan, 20:00etan.

“Jende libreak gara, ez gara beldurtzen. Inoiz hilko ez diren sekretuak gara. Tinko eusten dietenen ahotsa gara” dio bere abestirik enblematikoenak, Kelmti Horra (nire ahotsa libre da)

deiturikoak. Pariseko Bastilla plazan entzun zen lehen aldiz, 2007an, eta Ben Ali agintetik kendu zuen mungimenduak himnotzat hartu zuen gerora. “Jazminen iraultzaren ahotsa” deitu izan zaio Emel Mathlouthiri. Musika arabiarra, rocka eta hip hopa nahasten dituzte bere doinuek, eta bere ahotsak hipnotizatu egiten duela diote askok.



Emel Mathlouthi





## Teatroa maitatzeko

LUHUSOKO estreinaldiaren osteko emanaldi oldearen harian, Usurbilen eskaini zuen Huts Teatroak *Publikoari gorroto* antzezlan berria. Antzerkizale eguna zen, eta Sutegi aretoa bete zuten zaleen artean antzerkigile ugari zegoen.

Interes biziko lana da *Publikoari gorroto*, hainbat arrazoirengatik: lehenik eta behin, Ander Lipusen ibilbidean urrats bat gehiago suposatzen du lan honek, Artedrama plataformaren gerizpean Huts Teatroa taldea sortu berri duen heinean. Aspaldian testu berririk eza gutu ez diogun arren, Xabier Mendiguren Elizegiren teatro lan bat da oholtzara eraman dena, euskaraz teatroa idazteko apustua egindako literatura idazle bakanetakoa. Kasu honetan zehazki, are interesgarriagoa egiten du Antonin Artauden esanen eraginpean sortu izanak testua, ankerkeriaren bide-tik; teatroari berari buruzko lana da *Publikoari gorroto*, teatroa teatroaren barruan. Azkenik, lana osatzeko lantalde tekniko eta artistiko anitza bildu da, emaitza estetikoan eragin ederra izan duena; fitxatik izen batzuk ekartzearen, Iñaki Ziarrusta eta Miren Tirapuk ausardia eszenikoz egin diote aurre ustezko minimotan mantendu behar den interpretazioa osatzeari. Haiekin batera nabarmentzekoa da Manex Fuchsen zuzendaritza; Joseba Sarrionandiaren testuetan oinarritzen zen *Aulki butsa* lanean Lipusek zuzendu zuen Fuchs, eta oraingo honetan rola aldatu egin dituzte.

Ez da apustu erraza *Publikoari gorroto* taularatzea. Lehenik eta behin, tituluaz harago publikoari eta are teatroari berari maitasuna adierazteko modu bat delako, teatroaz gogoeta egiten ohituta ez dagoenarentzat arrotza suerta litekeena apika. Teatroa maitatzeko erronka luzatu diote egileek publikoari berari beraz, ez modu errazeen: egitura dramatikoari dagokionez ez da ohiko antzezlan, zenbait unetan dagoen umore motak lanean sartu



*Publikoari gorroto* obra Luhuson estreinatu zen azaroaren 1ean. Hilaren 23an Bergaran jokatu da, 25ean Iruritan eta abenduaren 7an Donibane Garazin.



baino, atera egin dezake ikuslea, manifestu itxurako sarreran esan beharreko asko esanak geratzen dira lan osorako, zirkuluan baino ez du egingo aurrera istoriorik gabeko istorioak nolabaiteko *in crescendo*aren bila. Ezohikoa, eta horregatik beragatik ikusi beharrekoa. Publikook eskertu egiten ditugulako ezeroso sentiarazten gaituzten lanak, kulturak funtsezkoak dituelako ezohiko mundu batean sentiarazten gaituzten obrak: ikasteko, eztabaidatzeko, ikusle gisa hazteko, teatroa eta artea maitatzen jarraitzeko.


Eta funtsean, bada ankerkeria oro hari bakarrean lotu eta ikuslea harrapatzen duen zerbait: Ziarrusta-Tirapu bikoteak obrari emandako interpretazio-orube sendoa, eta

Ander Lipusen maisutasuna ohol-tza gainean. Egileek bete-betean asmatu dute Lipusen ibilbidean arras ezagunak diren karabanako pertsonaiak obraren dramaturgia propioan txertatzen. Testuari sekulako bizitza emateaz gain Lipusen ibilbidearekin guztiz koherentea da hautu hori, zentzu horretan kasik hunkigarria izateraino. Horri lotuta, segur aski eredugarria da aurretik paperean idatzitako testu bati eszenan bizitza emateko duten modua: hitzek lerro artean gorde dezaketena ikusten eta ikusarazten jakin dute une askotan. Teatroa maitatzeko lana da, funtsean. ■

Oier Guillan



## Nanoteknologia pobatzen giza garunean



FRANTZIAKO Energia Atomikorako Komisariatuak sostengatzen duen Grenobleko Clinatec laborategiak baimena jaso du 2013tik aurrera giza garunean mikrotxipak jartzeko. Helburua Parkinson gaitxotasunaren, tetraplegiaren eta depresioaren aurkako borrokan urratsak ematea da.

Laborategiak sei logela, ebakuntza-gela bat eta 60

teknikari ditu, guztiak nanoteknologian espezializatutako ingeniari, mediku eta biologoak.

Boluntario tetraplegiakoei, esaterako, elektrodoak dituen kutxatxo bat ezarriko diete garunean. Kutxatxo horretan garuneko jardura erregistratu eta hori, hanka edo beso robotizatu baten bidez, mugimendu bilakatuko dute. Parkinsona dutenen kasuan, berriz, gaitza sortzen duten garuneko uhinak berraldatzen saiatuko dira.

Saiakerak zenbaterainoko arrakasta eduki duen jakiteko 2014 arte egon beharko dugu zain. ■



## Zientzialariak laguntza eske

BIZITZEN ARI GAREN KRISIA luze jotzen ari da, eta administrazio publikoetan dauden murrizketekin batera, gure enpresetako erreserbak ere gutxienekoaren azpitik daude. Artikulu honen helburua ez da krisitik nola aterako garen esatea, baina bai harekin zerikusia duten gertakizun batzuen berri ematea.

Hego Euskal Herrian, eta batez ere EAEn, ikerketa eta garapenean egindako inbertsioa Europaren batez bestekotik gora izan da orain arte. Aurten Espainiako administrazioak miseria gorrian utzi ditu ikerkuntza-zentroak eta gureak ere nabaritzen hasi dira hori. Eusko Jaurlaritzak ikerketa eta garapenerako dituen programetan zer gertatuko den ez dakigu —eta urtea amaitzean da!—, baina euskal ikerlarien kezka nabarmena da. Europar Batasunak murrizketak iragarri ditu datorren urterako, baina ez da espero Espainian gertatzen ari den adinako basakeria.

Jaurlaritzak berriak erronka ederra du alor honetan, eta bi aukera baino ez: espainiarra izan edo geurea izan, ez baitugu ahaztu behar etorkizunaren zati handi baten funtsa orain iker-tzen dugunaren arabera izango dela. Segituko dugu. ■



## Ilegorriek melanomak izateko arrisku handiagoa dute

Gauza jakina da ile horia eta azal zuria dituzten pertsonen beltzaranek baino usuago izaten dituztela erredurak larruazalean, eguzkiaren eraginez. Orain gutxi argitara emandako ikerketa baten arabera, gainera, ile gorria dutenek melanoma —larruazaleko minbizi— gehiago garatzen dute, eguzkia hartu gabe ere.

ttiki.com/44123  
(Gaztelaniaz)

## Eguzki Sistemako arrolarik handiena, Marten

Marteko Marineris arroila da Eguzki Sistemako handiena. 4.000 kilometroko luzera du, 200 kilometroko zabalera, eta hamaika kilometroko sakonera izatera ailega daiteke. Datu horiek Mars Express zunda europarrak igorritako irudietatik ondorioztatu dira.

ttiki.com/44124  
(Gaztelaniaz)

## Aire egokituaren eragina udako kontsumo elektrikoan

Carlos III Unibertsitateko eta CSICEko ikerlariak Madrilen uda dagoen kontsumo elektriko aztertu dute eta ondorioa argia izan da: aire egokituak kontsumoaren herena baino gehiago eramaten du. Aholku interesgarriak eman dituzte hori gutxitzeko.

ttiki.com/44125  
(Gaztelaniaz)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

**iametza**

interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16




## Makatza

SAGARRAK GORA eta sagarrak behera nabil sagarrondoan, jateko bezala sagardotarako, azkenaldi luze honetan. Eta udareak? Ez al ditut udareak sagarrak bezain gure?

Gure udareak ahazten ari gara. Tarteka datorkidan gogoeta da, eta oraintxe, sagarrez zintzurreraino, gogora ekarri dut. Bukoi, upel eta barrika, etxeko ontzietan irakiten ari den sagardoa egunean hirutan osatzen dut. Gal-gal sortzen duen aparrak, datorren sagardoa garbitzeko, gaineko zulotik gainez egin behar du. Eta gaindika egiteko txuloaren ertzeraino lepo beteta egoteko muztioz osatu behar. Horixe eginda abiatu naiz lanera, Madariaga ingurura, eta madariak ahazten ari garenaren gogoeta berriro bueltan.

Udarea, madaria, makatza, txerrena... zenbat izen! Sagarrak ez bezala izen ugari du euskaraz. Lehenagotik geurea dugunaren seinale ote? Arbolari ere era askotara deitzen zaio: madari-ondoa, madari-makatza, madari latza, madaritze, madaritze, udalondoa, udareondoa, udaretze, udare-arbola, txintila makatza... Gurean maaltza esaten diogu. Madari latzatic etorriko da, noski.

Makatza deitzeak pizten dit arreta. Guretzat, Gipuzkoako Beterrin, makatza basatia dena da: sagar-makatza, udare-makatza... Ia beti basoan edo txaran bere kasa hazten dena, bera bezalako beste baten hazitik sortua, inork



landu gabea, eta txertatu gabea, txertaka.

Eta zergatik eman makatza izen soila fruitu horri? Nire ustez, nekazaritza eta fruitu-zaintza hedatu aurretik basoan bildu ahal zena jaten zen garaietako hondarra da. Harrapatzen zen tankera horretako fruitu bigun eta pipitadun guztia makatza izango zen: sagarra, udarea, maspila, hostazuria, gurbea, otso-lizarra... Gero kanpotik ekarri diren fruituen aldaera basakei makatza deitzen zaie: mahats-makatza, gaztaina-makatza... Bi erabilpen horiek gelditu zaizkio makatza hitzari: basaka eta udarea. Azken horrek, baina, garrantzia ematen dio fruitu horri. Etxekoa eta asko erabiltzen zena zela dio, agian sagarra baino lehenago eta gehiago. Udare ardo ez da gure kulturaren arrotza, oraindik udaredi zaharrak badira. Eta sagardoak sona hartu zuen garaietan, hura bereiziago eta hobea egiteko gurbea bezala udarea ere nahasten zitzaion sagarrari. Aldiz, lehen baserri-erokosten zen perilla deituriko udare txiki goiztiarra ere topatzea mirakulua da gaur. ■



### Irakurleak galdezka

Kaixo Lagunok. Aloe vera landarea daukat eta lorontzi txikitik handira pasa nahi dut. Noiz da garai onena eta normalean zenbat ur bota behar zaio? Besarkada bat.

**Xabier Olano (Segura)**

Kaixo Xabier. Aloe vera ontzi txikian hobeto bizi ohi da. Ez jarri ontzi handiegian. Hosto handienaren luzeraren erdia diametro duen ontzia nahikoa du. Ontzi-aldatze lana lurra bero dagoenean egitea da onena, apiriletik aurrera, alegia.

Ureztaketari dagokionez, bizi den tokiak agintzen du, baina udartearen eguzki galdatan bizi bada

astero, bestela biz behin. Ur asko eman eta ontziko lurra hartzen ez duena, azpiko plateran gelditzen dena, kendu. Neguan, kanpoan bizi bada batere ureztatu gabe ederki iraungo du. Hotzari askoz ere hobeto aurre egingo dio lehorrean. Barruan bizi bada bi hiru astez behin eman ur pittin bat. Ahal baduzu euri-ura bildu eta hura eman. ■

# 216.000

**Hori da** egunero munduan emendatzen den jende kopurua, jaiotakoak ken hildakoak. Eguneroko jende berri hori elikatze-ko nekazaritzarako 41.000 golde lur inguru behar da, 13.700 hektarea lurretik gora. Hiru Bilbo baino gehiago, egunero. Eta bost egunero Zuberoa bat lur... Balkoi, terrazak, atari, lorategi... Baratzegintzan hasten ahal gara! ■

# Bizar urdindun serieko hiltzailea

BREITAINIA, 1432. Frantzia eta Ingalaterraren arteko Ehun Urteko Gerra betean (berez 116 urte iraun zuena) Gilles de Montmorency-Laval, Raiseko baroia, mariskal izendatu zuten, gudu zelaian emandako zerbitzuen ordainetan. Frantziako noble familia nagusietako eta aberatsenetako baten oinordekoa zen, eta urte hartatik aurrera, aitona hil zenean, ondasun haiekin nahi zuena egiteko aukera izan zuen. Gainera, gerrak Gilles de Raisen izen ona eta ondasunak areagotu zituen. Frantziako gizonik miretsienetakoa zen orduan, Joana D'Arc-en jarraitzaile sutsua, oso fededuna, jantzia, musikazale amorratua, eskuzabala. Baina historiako serieko hiltzaile krudelenetakotzat hartzen da gaur egun.

Gaur egungo psikiatren esanetan, Gilles de Raisek joera psikopatioak edo eskizofrenia larria zituen seguruena. Muturreko oldarkortasuna balia garria izan zitzaion gerra kontuetan, baina bizimodu zibilean ondasunen bidez soilik lortu zuen krimenak estaltzea. Eta ez betiko.

Plazera lortzeko dirutza xahutzen zuen baroia. Esaterako, Poitierseko gudua antzetzeko 150 aktore kontratatu eta 80.000 koroatik gora gastatu zituen. Baina plazerik handiena haurrak eta gazteak –6 eta 18 urte bitartekoak– bahitzen, bortxatzen, torturatzen eta hiltzen lortzen omen zuen, eta horretan ere ez zuen ahaleginik aurreztu. Hark eta haren zerbitzariak ia Britainia osoa zeharkatu zuten hiltzailearen gustuko gaztetxoak “biltzeko”. Batzuetan indarrez eta bestetan engainuz –biktimei nahiz gurasoei etorkizun oparoa aginduz– eramaten zituzten Tiffaugeseko gaztelura. Izualdiak 1432tik 1440ra arte iraun zuen, eta zortzi urte horietan Britainian 1.000 haur eta gazte inguru desagertu omen ziren.

Inguruko haurrak bezala, Gilles de Raisen dirutza ere urritzen hasi zen. Bere buruaz gain, inguruko asko porrotera eramane zituen, eta salaketen oihartzuna Nanteseko gotzaina-



ELOI FERON

Gilles de Rais (1404-1440), hil artean Frantziako heroia izan zen, eta ondoren historiako serieko hiltzaile nagusietakoa.

rengana iritsi zen. Bere luxuzko bizimoduari eusteko, lurrak, etxeak eta gazteluak saltzen hasi zen, eta halako batean, geratzen zitzaizkion azken gazteluetako batean, gorpu askoren arrastoak topatu zituzten. Raiseko baroia 1440ko irailaren 15ean atxilotu zuten. Torturapean eta buru nahasmenduek akuilatuta, handik hilabetera bere krimenak aitortu zituen. Eta urriaren 26an urkamentuan hil zuten.

Haren bizar beltzak dirdai urdinxkak omen zituenez “Bizar Urdin” goitizena zuen heroi ohia krudeltasunen paradigma bihurtu zen bat-batean. Eta 1697an Charles Perraultek serieko hiltzaile horretan oinarrituta idatzi zuen *Bizar Urdin* ipuin ezaguna. Baina, beste behin, errealitateak fikzioa gainditu zuen aise. ■



## Arrastoak

### Turkiako Errepublikak 90 urte

1922KO AZAROAN Otomandar Inperioko Mehmed VI.a sultana (1861-1926) abdikatu egin zuen, eta Mustafa Kemal buru zuen Turkiako Asanblea Nazionalak sultangoa abolitu zuen. Mehmed Otomandar Inperioko azken sultana izan zen eta, horrenbestez, Turkiako Errepublika egituratzen hasi zen. Errepublika handik hamaika hilabetera ezarri zuten ofizialki, 1923ko urriaren 29an, eta Mustafa Kemal *Atatürk* lehen presidente izendatu.

Lehen Mundu Gerrak eragin zuen sultangoaren beherdia. Otomandar Inperioa galtzaile izan zen eta sultangoa asko ahuldu zuen horrek. Gerra galdu eta berehala bildu zen Kongresu Nazionala lehenengoz. Eta Greziaren aurka Independentzia Gerra irabazi ondoren, errepublikano indartuek babes zabala lortu zuten, zabalegia sultangoari eusteko. ,



SEBAH & JOAILLIER

Mehmed VI.a Vahdettin, Turkiako azken sultana. Duela 90 urte abdikatu behar izan zuen.




# «Euskara batuko hiztegiak zirriborro rustikoak besterik ez dira»

Duela bi urte, *Euskara batuaren bigarren jaiotza* argitaratu zuen Xabier Amurizak. Orain, berriz, *Zazpi ebidentzia birjaiotzarako* (Lanku, 2012), aurreko haren erreferentzia eginez datorrena, euskararen norabidean “gako erabakiorrak” litezkeenak landuz beti. Ilunak argitzeko asmotan, hainbat irakurgai literario ditu adibide, datorren urtean argitaratuko duen *4x4 Operazioa* nobelatik hartuak.

| MIEL A. ELUSTONDO |

Argazkiak: Zaldi Ero



Liburuan, sarrera bera baino lehen, aipu gisakoa, zeurea: “Euskal Herria euskalduntzea ez dago euskaldunon esku bakarrik. Bai dago gure esku –eta geure bakarrik–, hizkuntza lehiakor bat garatzea. Horrek asko lagun dezake Euskal Herria euskalduntzen”. Hizkuntza lehiakorra, diozu. Inguruan ditugun hizkuntzekin lehian jartzean bistaritzen da aldea. Bestelako hizkuntza batzuk bagenu ondoan –azpigaratuak, kasu–, lasai geundeke, baina ondolan ditugunekin lehian abiatzen garenean, ez gara haien mailara iristen. Pentsatu ere ez! Hizketan ari garela, euskara garatuenaren jabe denak ere laster esango dizu: “... erdaraz esaten den bezala...”. Zergatik jotzen dugu erdarara hain maiz? Herren egiten dugulako esapide, argot eta abarrean. Lexikoan ere problema handiak ditugu. Liburuan planteatu dudan bosgarren ebidentzian, izan ere, euskara inguratzen duten zenbait hizkuntza handiren ondare komunaz ari naiz: *anbizio*, *intromisio*, *exotiko*, *ebidentzia*... milaka hitz dira ondare komunekoak, gaztelanian, frantsean, ingelesean... Aldiz, jo Euskaltzaindiaren hiztegiatara, eta ez *anbizio*, ez *ebidentzia*, ez antzeko hainbeste, ez datoz.

Zazpi ebidentziaren inguruan ari zara liburuan zu. Lehenengo ebidentzian, esaldien luze-laburraz ari zara, esanez luze, labur eta era guztietako esaldiak behar ditugula. “Ebidentea!”, diot. Bigarren ebidentzia zure liburuan, perpausaren ordenari dago-



**“Interbentzio on bat eta ondo antolatu bat ez baldin badago –eta gizartearen inplikazioa, jakina!–, euskara galdu egingo da”**

kiona: ez dago ordena jakin eta derri- gor bat. “Ebidentea!”, berriz, nik neure buruari. Fernandoren egia- k zirelakoan.

“Ebidentea” diozu zuk, neuk beza- la, baina badirudi ebidentzia horrek ez duela balio. Euskara “erraza” egin behar dela entzuten da nonahi oraindik! Euskara erraza egitea ondo dago hamar urteko neskato edo mutiko bati, baina heldu bati? Zer esan nahi du “eus-

kara erraza”k? Mota guztietako euskarak behar dira, eta hizkuntza konplexua –ez zaila!– egiteko baliabideak izan behar ditugu, nork behar duen euskara, eta nahi duena, egiteko. Zergatik saihestu behar dut hizkuntza konplexua, ideien lotura bertan gorderik denean? Zergatik saihestu behar dut konplexutasuna, artea bertan baldin badago? Euskarak erraza izan behar duela aldarrikatu zaio irakurleari, eta esaldia apur bat konplikatuz gero, ez da segitzeko gauza! Idazleoi ere, sarritan, horixe sartu zaigu buruan, irakurlea hamar urteko neskato-mutikoen mailan tratatu behar dugula! Baliabideak behar ditugula esaten ari naiz ni. Eta gero bakoitzak dakuske zer nola non aplikatu.

Esaldi konplexuak ere behar ditugu.

Horixe diot nik. Itzultzen ari naize- nean –eta ez naiz autore moderno- ez ari, Proust bat, esaterako, baizik itzuliak ditudan Tazito eta Lukrezio, adibidez–, esaldi konplexuekin topo egiten duzu behin eta berriro. Zer egin behar dut? Guraizeen teo- ria erabili? Han moztu, hemen ebaki? Ez! Baliabideak ez ditugu irakatsi, edo ez ditugu erabiltzen. Edo irakurlea ez da baliabide horie- taz jabetu. Eta zerbait konplexua irakurtzen duenean, oso zail egiten zaio testua.

Liburuan, 5., 6. eta 7. ebidentziak lexikoaren ingurukoak dituzu, esapi- de eta esaerez ari zara, argotaz.

Lexiko garatuaz ari naiz, edozein mailatako kontzeptuak adierazteko hitzez. Eta hor bada ondare komun bat –ondare ez komun bat ere bai, noski, hizkuntza bakoitzak berea duen hitz multzoa–, eta ondare horretako hitzak gabe, ezin da ezer esplikatatu. Hitz egiten dugula, pare bat dozena adjektiborekin molda gaitzke, baina itzultzen hasten garenean, pare bat dozena ez, mila- ka adjektibo diferente behar ditugu, denak inportanteak. Adibidez, *bere- zki* adjektiboak ezin ditu honako denak adierazi: *espezial*, *eszentriko*, *exotiko*, *partikular*, *singular*, *tipiko*, *estrabagante*... Nire ebidentzia da eus- kara ere partaide dela ondare komun horretan.

## Akademiaren hiztegia

“Oraintsu, *Euskaltzaindiaren Hizte- gia* kaleratu du Euskaltzaindiak berak. Egia esan behar badizut, dezepzio handia hartu dut. Hobeto esanda, beste dezepzio bat. Lehendik sarean zegoen *Hiztegi Batuatik* milaka hitz kendu dituzte. Hurrengo bertsioan sartuak izan- go direla agintzen dute, baina orain... falta dira! Niretzat, *Hiztegi Batua* bera ere oso murrizta eta irizpidez restriktiboa zen. Euskara

batua jaio zenetik, laster da mende erdi. Horrexegatik aldarrikatzen dut birjaiotza bat. Eguneroko urgentsia dugun lexikoari gagoz- kiola, Euskaltzaindiaren azken hiztegi honekin ezin da etxeko atarira ere irten. Noizko itxaroten dudan hiztegi oso eta lehiakor bat? Buf! Uste dut Euskaltzain- diak munduan ibiltzeko moduko hiztegi bat osatzen duenerako, euskara galduta egongo dela”.



**Zer duzu “ondare komuna”?**

Euskararen inguruko eremu oso zabal bat osatzen duten hizkuntzen komuntasuna. Erreferentzia bezala, espainola, frantsesa eta ingelesa hartzen ditut, hiru horiek nahikoa direla usterik, baina komuntasun horren partaide dira beste hainbat hizkuntza ere: katalana, galegoa, portugesa, italiera...

**Esapide espresiboak eta argota problema handia ditugula ere ebidentzia dituzu.**

Ebidentzia handia eta problema ere ez txikia. Ikusi besterik ez dago. Dena dela, oso arlo ezberdinak dira esapideak eta argota. Hizketan ari garela, hizkuntza guztietan ere, noiznahi jotzen dugu esapidera, zerbait azaltzeko. “Itsuak ere ikus”. Edo esaerara. “Alferra beti lantsu”. Beti ari gara sortzen, esapide informatiboak, nahiz espresiboak. Horretan ugaria da euskara, baina ugariagoak ondoko hizkuntzak, eta eurekin lehiatu beste erremediorik ez dugu. Euren mailara hurbiltzen ez bagara, hots, euskara gaitzen ez badugu nahi dugun dena adierazteko, maiz joko dugu erdarara. “Erdaraz esaten den bezala” makuluarekin ibiliko gara beti.

**Nola bete hutsune hori?**

Berez ez, behintzat! Interbentzioa behar da. Alferrik da esatea beste hizkuntzek denbora bat behar izan dutela normaltzen. Erdarak garatu, normaldu eta nagusitu ziren bitartean, euskara galtzeko arriskuan dago! Hizkuntza ahula da. Maila batzuetan indartuz doa, bai, baina beste batzuetan, erortzen eta hiltzen ari da. Hizkuntza hau kolokan dago. Kanpoko aditu askok galtzekoen artean sartzen dute euskara. Interbentzio on bat eta ondo antolatu bat ez baldin badago –eta gizar-tearen inplikazioa, jakina!–, euskara galdu egingo da.

**Karlos Cid Abasolo**

“Oso hizkuntzalari ona da. Sen handia du. Madrilen bizi da, Madrilgoa da eta, paradoxaz, era argiagotan ikusten ditu hemengo gauzak, gure zurrumbilo sarritan biszeraletik eta ika-mika probintzianoetatik kanpo. Bere irizpidea beti interesatzen zait. Madrilen izan nintzen, bertsolaritzaz mintzo, eta hantxe ezagutu nuen. Lagun egin ginen, eta zertan ari nintzen azaldu nion. Berak, bes-

talde, erlatiboaren inguruko lan sakona egin zuen. Neure saiakeraren testua bidali nion, eta egundoko lana egin zidan, neuk eskatu gabe, batean eta bestean oharra eta zuzenketak eginez. Harrezkero, bera dut aholkulari eta berrikusle. Oso esku segurua da Karlos. Hala izan zen *Euskara batuen bigarren jaiotza* hartan, eta halaxe izan da oraingo hontan ere”.

**Nork egin behar du interbentzio hori?**

Nire saiakeran, interbentzio arlo batzuk markatzen dira, ez eragile konkretuak. Dena dela, jo dezagun, adibidez, hiztegien arlora. Euskal Herrian hainbat hiztegi egiten dira. Batean, talde batek, bestean beste batek eginak ditugu. Bazoaz halako hitz baten bila, eta batean ez dator, bestean bai, hurrengoan nork jakin nolako ordainak... Gehienetan,

**“Noizbait –ahalik lasterren, mesedez!–, munduan ibiltzeko moduko hiztegia osatu beharko da”**

neologismoak ez dira batere kontintzenteak. Nik hiztegi nazional bat nahi dut, ahalik osoena, esapideak eta argota barne. Metodo on bat behar da, hartzen edo asmatzen ditugun hitz eta esapideak hiztegitara eramateko, eta hiztegitatik erabilera iristeko. Horretarako, halako adostasun nazional bat da beharrezko, Euskal Herri guztietako euskaldunek hitz eta esapide horiek onartzeko modukoa. Gaurko hiztegiak

helburu horretatik urrun daude oraindik.

**Korapilo bihurriago zaizkit zure 3. eta 4. ebidentziak. Lehena erlatiboari dagokio, aditzari bigarrena. “Erlatibo osoa” errebindikatzen duzu, inguruko hizkuntzetan dabilenaren antzekoa.**

Erlatibo forma asko bagenituen lehendik ere, ahozkoan erabiltzen genituenak, eta ditugunak oraindik. Bestalde, tradizioan badira erlatibo batzuk –ez-murrizgarria deritzon, batez ere–, idazleek erabili izan dituztenak: *zeina, zeinaren, zeinanean, non...* eta abar. Batzuek begizkoa diete oraindik, eta hor konpon, erabili nahi ez badituzte, baina hortxe daude, eta baliabide zehatzak dira. Hutsune larria erlatibo murrizgarria deritzon horretan genuen, non aditzak adierazten dituen nor-nori kasuak bakarrik erlatiba genitzakeen zuzenki: *hauxe da gebien maite dudana; hauxe da gebien maite nauena; hauxe da gebien zor dionana* eta beste kasu guztiak: *noren, norekin, norengan, norentzat...*? Hori xe da nik proposatzen eta ustez konpontzen dudana, izenordain bat –edo genitiboan, posesibo bat–, aurrera pasatuz. Adibidez, norbait aurkezten ari naiz, eta diot:

Babeslea: Emun

**Erronketan aurrera egiten laguntzeko gaude.**

Euskara planen bidez hizkuntzak eraginkortasunez kudeatzen dituen talde profesionala gara.



- HIZKUNTZA AHOLKULARITZA
- EUSKARA PLANAK (enpresa, administrazio eta bestelakoetan)
- EUSKARA PRESTAKUNTZAKO MODULU BEREZIAK
- ITZULPEN ZERBITZUAK



www.emun.com  
www.lantalan.com



“Hauxe da bere begiek itsuki liluratu nindutena”. “Hauxe da berarekin edonora joango nintzatekeen bakarra”. “Hauxe da berarengan konfiantza dudan bakarra”. “Hauxe da beragatik bizia emango nukkeen bakarra”. Edo aposizioan: “Hauxe da bakarra, berarekin edonora joango nintzatekeena”, eta abar. Hain zaila al da hori?

#### Zure ebidentzia duzu hori, inondik ere.

Ebidentzia da erlatibo osoa behar dugula. Guraizeen teoriak ez duela balio. Sintaxi osoa behar dugu, erlatiboa barne. Erlatiboak adina falta egiten digun beste egiturarik ez dago ezin hizkuntzatan, gure inguruan behintzat. Literarioki, are gutxiago. Erlatibo osorik gabe, ezin da literatura onik egin. Nik neure soluzioa aurkezten dut, eta ondo doakit. Hoberik baletor, pozik eta berehala hartuko dut.

Euskara erraza ezetz esan duzu behin baino gehiagotan, eta elkarrizketa honetan bertan ere bai. Aditzaren gainean, aldiz, “erraztu eta laburtu” beharra aldarrikatzen duzu.

Non edo non idatzia dut, bai: “Aditza behar da egokitu, bestela berak itoko gaitu!”. Aurreko liburuan, aditzaren gaineko atalari “Aditzaren fantasia heroikoa” izena jarri nion.

Soluziorik ez daukat, baina banaiz gauza bideak markatzeko, eta batzuk oso emankor izango direla uste dut.

#### Zure liburu honetara, eta bertan ageri diren irakurgaietara iritsi artean, hainbeste aditz trinko irakurri gabea nintzen aspaldi.

Lehen izan ditugun aditz trinkoak dira gehienak, eta batzuk, analogiaz sortuak. Irakurgaietan, poesia, kantetan eta, oro har, edozein idazkera jasotan, baliagarri zaizkit, eta hantxe erabiliko ditut, ez zurekin hizketan ari naizenean. Edonon ez, baina berreskuratu eta erabili, bai. Ez da estetika kontua bakarrik, praktikotasuna eta beharra baizik. Horixe dugu beste ebidentzia bat: euskara laburtu egin behar da. Eta zein da luzeraren eragile nagusia? Aditza, batez ere. Horretaz ondoen publizitatean dabilena jabetuko da, edo kazetaritzan –titularrak, argazki-oinak–,

**“Horixe dugu beste ebidentzia bat: euskara laburtu egin behar da. Eta zein da luzeraren eragile nagusia? Aditza, batez ere”**

edo esaldi laburreko elkarrizketak itzultzen dabilena... Diskurtsoa luze denean, beti dira nominalizazioak eta beste, baina hizkuntza batean eremu asko dira laburtasuna nahitaezko dutenak. Aditz trinkoak soluzio handiak dakartza. Kantagintzan edo bertsoagintzan ere berehala ikusten da aditz trinkoen balioa. *Letozke, nengoke* eta antzekoak askoz funtzionalago dira *etorriko lirateke, egongo nintzateke* eta abar baino. Adibidez: “Bi musu ondo letozke”. Esaldi oso bat esan duzu zortzi silabatan. “Etorriko lirateke”. Aditza besterik ez duzu esan zortzi silabatan. Aditz trinkoen bidea garatu “beharra” ebidentzia bat da niretzat.

#### Ari zara ebidentziak agertzen, baina gurean, Euskaltzaindiak du aspaldi aginte-makila. Zer leku du zure proposamenak gure hizkuntzaren auzian?

Hiztegi kontuan, Euskaltzaindiaren lana oinarritzakoa eta lehentasunetzakoa dela pentsatu nahi dut, baina noizbait –ahalik lasterren, mesedez!–, munduan ibiltzeko moduko hiztegia osatu beharko da. Euskaltzaindiak atera berri duen hiztegian badaude, noski, gaurko munduko hitzak, baina milaka falta dira! Zergatik falta dira *ambizio, ebidentzia, instrukzio* eta, oro har, ondare komuneko milaka horiek? Erdal-euskal hiztegiek ematen dituzten ordainak, berriz, sarritan arbitrarioak edo gutxi gorabeherakoak dira. Adibide bat: gaztelaniaz *ambición*; frantsesez eta ingelesez, *ambition*; portugesez, *ambição*... Ikus hitz horren ordainak gure hiztegiatan, eta zer topatzen dugu? Kaos bat! Zergatik falta da *ambizio* gure hiztegiatan? Zergatik falta dira horrelako milaka hitz garrantzitsu? Inguruko hizkuntzen jokaera zuzena bada, jaiotzatik mende erdirantz doan euskara batuko hiztegiak, oraindik proportzio etsigarrian, zirriborro rustikoak besterik ez dira. Hiztegiei edo estilo liburuei jaramon egin banie, liburu honen izenburuak beharko zukeen: *Zazpi begi-bistakotasun birjaiotzarako* edo horrelako zerbait. Nora goaz hortik? ■





# Lan merkatuaren egiak poligrafotik pasata

2008an gainbehera hasi zenetik, hainbat uste elikatu izan dira gure ekonomiaren abantailez eta enplegua sortzeko formulez. Urtebetetik honako langabezia datuek agerian utzi dute Euskal Herriko lan merkatua krisiari eutsi ezinik dabilela eta ez dela hain sendoa.

| URKO APAOLAZA AVILA |

LANGABEZIAREN datu txarrek alarma piztu dute beste behin urrian, azken hamabi hilabeteotako joera okertu baizik ez dute egin. Euskal Herriko lan merkatuaz orain arte egiaztat onartu izan diren hainbat baieztapen ezbaian dira.

## 1- Hego Euskal Herrian langabezia datuak Espainiakoak baino hobeak dira.

Espainiako Estatuko langabezia tasa %25,05ekoa da, aldiz, Hego Euskal Herrikoa %15,35ekoa, ia hamar puntu baxuago beraz. Espainiako estatistika institutuaren datuak dira, Europako beste herrialdeekin homologagarriak.

Baina joerari erreparatuz gero, datuak ez dira hain positiboak. Esaterako, azken hamabi hilabeteetan %16,9 igo da bertoko enplegu bulegoetan erregistratutako langabetuen kopurua eta Espainian datua askoz apalagoa da, %9,75.

Krisiak atzerapenez jo ditu Bidasoaz hegoaldeko euskal lurraldeak, eta ubeldurak orain ari dira nabaritzen. Urriko langabetuen igoera azken lau urteotako txarrena da -5.255 langabe gehiago- eta 2008ko udazken negargarrira egin behar dugu halako zifrak ezagutzeko -orduan 7.816 langabe gehiago erregistratu ziren-.

Espainian, kontrara, iazko urriko datuak baino hobeak izan dira oraingoak, lelantoniren baten kontsolaziorako. Lana dutenen kopu-



Azken hilabeteetan langabezia tasa gehiago hazi da Hego Euskal Herrian Espainian baino. Irudian, ilarak INEM aurrean 2009an, krisia hasi berritan.

ruaren beherakada ere Euskal Herrikoaren puntu eta erdi apalagoa izan da Espainian azken urtean.

“Bost urte egon gara lozorroan

-zioen Adrian Zelaia Ekai Centerreko arduradunak ARGIArekin izandako elkarrizketan-, diferentziala ez baduzu etengabe indaritzen, arriskuan jartzen duzu”.



Bizkaiko langabetuen asanbladak burututako ekintza. Industria izan da urrian langile gehien galdu duten sektoreen artean bigarrena.

## 2- Ipar Euskal Herrian langabezia ez da hain arazo larria.

Frantziako estatistika institutuaren datuak aintzat hartuz Ipar Euskal Herriko langabezia portzentajea Hegoaldekoa baino bost puntu apalagoa da. Hala ere, panorama iluna plazaratu du berriki Baionako Merkataritza eta Industria Ganbarak.

Lapurdin, Zuberoan eta Nafarroa Beherean 500 lanpostu desagertu ziren 2012ko lehen seihilekoan. Orotara 20.800 lagun ari dira Iparraldean lan bila –inolako lanik ez dutenen kopurua %14,2 igo da–, horietatik herenak urtebete baino gehiago darama egoera horretan. Gazteen artean langabezia %16 igo da eta 50 urtetik gorakoen artean %25. “Ez da ikuspegi xarmagarri bat”, aitortu zuen Ander Garreta ganbarako presidentek.

## 3- Euskal Herriko langabezia Europako batez bestekoaren antzekoa da.

Gaindegia behategi sozioekonomikoak azaldu du herrialde langabetuen pare gaudela, soilik Grezia, Espainia, Katalunia, Letonia, Portugal eta Irlanda daude aurretik.

Gaindegiak, Euskal Herriko datuak erkatu ditu Eurostateg mandakoekin. Euskal Herri osoan –Iparraldeko estimazioak barne– langabezia tasa %14,9koa da eta

EB-27n %10,5koa, 4,4 puntuko tarte beraz. 2009an bien arteko aldea dezimal gutxi batzuk baino ez zen. Europar Batasuneko datuetatik gero eta aldenduago dago Euskal Herria.

## 4- Industriaren pisuak lan merkatuari eusteko balio du.

Higiezinen burbuila lehertu zenean Euskal Herrian eraikuntzaren Balio Erantsi Gordina %9,82koa zen eta industriarena aldiz ia %27koa (Atlasa.net aplikazioan daude ikusgai datuok), horrek nolabait arindu egin du langabetu jariora.

Flotagailua baina, husten hasi da. Espainiako ekonomia ministerioak emandako azken datuen arabera, zerbitzuen ondoren industriarena izan da lanpostu galera handiena izan duen sektorea, zehazki, urrian 955 langabetu gehiago erregistratu dira arlo horretan Hego Euskal Herrian eta 2009ko zifretara itzuli gara: guztira 34.881 langabetu daude.

2009a euskal industriarentzat oso txarra izan zen, mundu mailako krisiaren katarsiatik: EAEn soilik ia 24.000 lanpostu galdu zituen industriak Eustat-en arabera, %9,9ko jaitsiera hain zuzen; eskualde industrializatuenetan (Durangaldea, Debagoiena...) %12ko jaitsiera izan zuen industriako enpleguak. Sekto-

reak esportazioekin duen menpekotasunak eragin zuen hondamendia, %24 jaitsi baitzen kanpora eramandakoa 2009an.

Europako herrialde nagusien ekonomia hazkundera oso txikia den honetan, antzeko fenomeno bat gerta liteke. Eusko Jaurlaritzak *Koimuntura di-da batean* buletinean iragarri du EAEko industriak %3,5eko jaitsiera izango duela hurrengo hiruhilekoan eta ez dela 2013ko azkenera arte berreskuratuko.

Datu horrek, eta hainbat lantegitan hartzen ari diren langileen kontrako neurriek –Gamesak Nafarroan egingo dituen balizko kaleratzeak, esaterako–, aurreikusiten dute industria ez dela gai izango lan merkatu sendo bati eusteko.

## 5- Malgutasuna behar da epe ertainera langabezia amaitzeko.

Mariano Rajoyren gobernuak behin eta berriz erabili zuen lelo hori 2012ko udaberrian, lan erreforma justifikatzeko, baita patronaleko ordezkariak ere; “malgusegurutasuna” hitza bogan jarri zen: “Askoz ere errazagoa da kontratazio finkoa. Legediak zaildu egiten du behin-behineko kontratazioa” zioen Eduardo Zubiaurre orduko Adegiko presidente *Berrian*, lan erreformaz.

Baina zortzi hilabeteren ondoren behin-behineko kontratuak apenas gutxitu dira eta kontratu guztien %92,4a dira oraindik.

Lan erreformaren alderdi kritikatuenetako bat negoziazio kolektibotetan langileak babesik gabe uztea izan da. Bi urteko epean ados jarri ezean, Espainiako Estatuko hitzar-



**Tolosako Babarruna**



**Hoberenak soilik aukeratzen ditugu**

☎ 943 650 253  
www.tolosakobabarruna.com



men orokorra aplikatu eta kito; lan baldintza kaskarragoak eta kaleratze gehiago ekarriko lituzke horrek.

Bada, EAEko Lan Harremanen Kontseiluak emandako datuen arabera, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaian 423.000 lagun daude oraindik lan hitzarmena berritu gabe, lau langiletik hiru. Nafarroan 110.000 langile daude egoera horretan, CCOO sindikatuaren esanetan.

**6- Gazteei familiaren "koltxoia" geratzen zaie oraindik.**

Gazteen langabezia tasak gora egin du etengabe. Instituto de Estudios Económicos fundazioak emandako datuen arabera, EAEn gazteen %34k ez du lanik eta Nafarroan %29ak.

Hautura horrek ekarri du gazte asko euren gurasoen laguntzaz bizi-raun beharra. Baina bestelako adierazleei erreparatuz hori ere aldatzen ari dela dirudi:

Espainiako Estatistika Institutuak urtero egin ohi duen bizi baldintzei buruzko inkestak zifra asalagarriak eman ditu Nafarroan:

11.730 familiak zailtasun ekonomikoak dituzte hilaren amaierara iristeko, iazko kopuruaren bikoitza. Hego Euskal Herrian lanik gabe dauden 101.763 lagunek ez dute inolako dirulaguntza edo saririk jasotzen eta egunean 17 familia kanporatzen dituzte etxetik hipoteka ezin dutelako ordaindu. Espainian 1,7 milioi etxetan kide guztiak lanik gabe daude.

**Gaindegia behategi sozioekonomikoak adierazi du herrialde langabetueneren pare gaudela, soilik Grezia, Espainia, Katalunia, Letonia, Portugal eta Irlanda ditugu aurretik**

Datu sorta honek agerian uzten du langabeziaren arazoa askoz orokorragoa dela eta familiaren babes edo "koltxoi" hori bukatzen ari zaiela langabe dauden gazteei. Arago, etxe askotan gurasoen pentsioak

izaten dira diru-sarrera finko bakarra eta horiek gutxitzen ari dira Zapaterok 2011 egindako pentsioen erreformaren ondorioz.

**7- BPGaren igoerak hobetuko du lan merkatua.**

Urriko langabezia datuak jakin bezain laster Aralar alderdiak eskatu zuen ez lotzeko enpleguaren sorrera Barne Produktu Gordinaren igoera soilarekin.

Arthur Okun ekonomialariaren teoria enpirikoak dio, enplegua mantentzeko BPGak %3 hazi behar duela. Baina nola uler liteke, adibidez, AEBetan urrian 171.000 lanpostu sortzea, BPGaren hazkundearen %2koa denean? Ez al du zerikusia izango Barak Obamak hautesurte honetan inbertsio publiko

ikaragarriak egin izanak enplegua sustatzeko?

Langabeziari aurre egiteko borondate politikoa da ezinbestekoa, ez BPGaren igoera. ■



**FINALAURREKOA**

**B D G R**  
Bizkaiko Bertsolari Txapelketa 2012

**ETXAHUN LEKUE  
JONE URIA  
FREDI PAIA  
IGOR ELORTZA  
GORKA OSTOLAZA  
ARRATE ILLARO**

**DURANGO**  
Azaroaren 25ean, domeka  
17:30ean - Landako gunea

[www.bizkaikotxapelketa.biz](http://www.bizkaikotxapelketa.biz)


Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia

Mancomunidad de la Merindad de Durango  
Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa

EUSKAL OROIGARRIA

# MAKILA

eskaintza berezia



Gaztaina / Larrua

Mizpira / Alpaka

Mizpira / Zilarra

Mizpira / Larrua

- Opari berezietarako
- Pertsonalizatuak
- Prezio aukera desberdinak
- Iñaki Alberdik eginak



 **argia**

Eskaerak:

Zirkuitu Ibilbidea, 2 - Industrialdea, 15  
20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa)  
© 943 371 545 - denda@argia.com

[www.argia.com/denda/makilak](http://www.argia.com/denda/makilak)





## Topaguneak mugimendua nola antolatu eta finantzatu hausnartuko du azaroaren 17ko kongresuan

TOPAGUNEAK 2010. urtean hausnarketa abiatu zuen eta hil honen 17ko kongresuan amaiera emango dio. XXI. *mendeko Euskaldunon Elkartearen Kongresua* izenarekin hasi zuen bidea. Lehenengo fasean, iaz, Euskaldunon Elkartearen Oinarriparrak onartu zituen Topaguneak, alegia, euskara elkartearen mugimenduak datozen hamarkadetan izango dituen gidalerroen proposamena zehaztu zuten.

Azaroaren 17an mugimenduaren antolaketa eta finantzaziorari helduko diote. Hiru gai nagusi jorratuko dituzte eta haiei erantzuna eman. Lehenik, antolaketaz arituko dira eta ondoko

gaiak landuko dituzte: mugimenduaren izena eta izana, mugimenduaren barne egituraketa, barne komunikazioa, bazkideekiko harremana, boluntarioen artikulazioa eta funtzioa, lan boluntario eta profesionalaren uztarketa eta transmisioa, besteak beste. Bigarrenik, finantzazioaz arituko dira eta hiru zutabe aztertuko dituzte: komunitatearen sostengua (bazkideztza kuota eta bestelakoak), zerbitzugintza eta babes instituzionala. Hirugarrenik, Euskaldunon Elkartearen Oinarriparraren adostu dituzten lehentasunak eta funtzioak aurrera eramateko mugimenduaren jardun ildoek hausnartuko dute.

## Bahea

Bego Montorio  
itzultzaileak *elearazi*  
blogean esanak:

“Gure artean, euskararako itzulpena izan baita gaitzesia, ez besterik –euskararako itzulpenik ez, baina gaztelaraz zein frantsesez itzulpenak lasai asko irakurtzen zuen asko egon da gure artean, bigarren multzokoak kasik jatorrizkotzat jota–, eta ez zen kalitate kontu hutsa (Gabriel Arestik *Verlainen Chanson d’automne* poema hain modu ederrean itzuli bazuen, bada posible itzulpena, ez?)”.

## EHEko kide Haizea Ramirez de Alda eta Itziar Claver zigortu dituzte

BI EGUNEZ etxean atxilotuta egon beharko dute Ramirezek eta Claverrek, eta isuna ordaindu. Horixe Euskal Herrian Euskaraz taldeko bi kideek jaso duten epaia. EHEren *Ezabatu eta Euskaraz Biz* ekimenean hartu zuten parte bi

kideek eta zigorra ezarri diete 2011ko azaroan Altsasun bide seinaleetan gaztelaniatzeko hitzak ezabatzegatik. Epaileak garbiketaren gauak ordaintzera zigortu ditu, nahiz eta oraindik ez duten esan isuna zenbatekoa izango den.

Haizea Ramirez de Alda eta Itziar Claverrek adierazi dutenez, ez dago euskaraz bizitzeko aukerarik eta lotsagarria da euskaraz bizitzegatik epaitegian egon beharra. Helegitea jarriko dute eta hilabete batzuk barru izango dute erantzuna.

## EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

### Kapitalismoak hil du Amaia

GOBERNU ETA ELIZA GEHIENEK bedeinkatua –ez Katolikoak soilik–, kapitalismoa krudela, terrorista eta hiltzailea da estrukturalki. Pertsonak mespretxatzen dituelako; manipulatu, esplotatu eta zukutzen ditu, ahalik eta etekin gehien ateratzeko, eta behar izanez gero, hil egiten ditu. Ez bakarrik gerrak sustatuz eta babestuz –legalak, ilegalak, zikinak...–. Hiltzen ditu bere lan sistemarekin, lan baldintzak hobetzeko inbertsio faltarekin, eta milaka pertsona kalean uzten dituzten “birmoldaketa” basatiekin. Eta hiltzen ditu lukurreriara hain emana dagoen eta hain krudela den bere finantza sistemarekin: higiezin burbuila sustatu, kredituak erraz eskaini, eta gero, burbuila hori lehertzen denean, bere dirua pertsegitzen du kapitalismoak. Hipoteka-kredituak betearazten ditu eta etxetik kanporatzeak agindu, sistemak berak eragindako langabeziaren eta pobrezia-aren menpe dauden milaka lagun kalean botata utziz.

Jadanik bagenituen terrorismo hiltzaile horren frog

ugari. Milioika pertsona hiltzen dira munduan goseak, hiesak edo beste gaixotasunek jota, kapitalismoari ez zaiolako interesatzen herri horietan jakiak sortzea, bai zik eta euren aberastasun naturalak aprobetxatzea, eta ez zaiolako interesatzen farmakoak eskaintzea. Milaka langile hil dira “lan isticipua” deituriko horietan. Milaka lagun hil dira, eta hilko dira, amiantoagatik. Ehunka langile “suizidatzen” dira despedituak izan baino lehen edo lana galdu ondoren. Joan den astean Barakaldon, Amaia Egañak bere buruaz beste egin zuen, etxetik kanporatzen ari zirenean. Kasu honetan, nola besteetan, kapitalismo horrek izenak eta arduradunak ditu: bankuak –La Caixa Amaiaren kasuan– eta gobernuak dira. Hildakoren bat dagoenean baino ez dira “mugitzen”. Halakoxe terroristak dira kapitalismoa eta bere kudeatzaile politiko eta judizialak. Amaia ere beraiek hil dute.

Juan Mari Arregi



# ‘Lehiakortasuna’ deitzen diotela bizi maila txartzeari

Ezkerreko zein eskuineko liderren topiko bihurtu da. lehiakortasun handiagoa behar dugula. Gure industriek lehiakorrago behar dute izan. Euskal Herri lehiakor bat nazioartean. Europa baitan bihurtu behar dugu munduko ezagutzaren ekonomia lehiakorren eta dinamikoena. Zer aurkitzen da topikoari axala urrututa?

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

GEOGRAFO BATEK BALIO DEZAKE urrutiko nahiz hurbileko mendi, ibai eta herriak deskribatzeko. Zerbitzu ona egin lezake ere munduan gertatzen ari diren fenomeno garrantzizkoak lekuetan kokaturik ondo azaltzen baditu. Lehiakortasun edo konpetitibitatea, esate baterako. Horixe egin du Gilles Ardinat geografo frantsesak *Géographie de la compétitivité* doktoregoko tesiarekin, eta laburbildu urriko *Le Monde Diplomatique* aldizkarian: *Quand l'Europe impose son credo. La compétitivité, en mythe.*

“Urteotan –dio Ardinat– gure agintariak bultzatu dituzte barnera-tzera AEBetako merkataritza eskolatan garatutako management teoriak: produkzio kosteen kontrola (‘kosteetako lehiakortasuna’), herrialdeak alderatu eta sailkatzea konkurrentzian ari diren enpresak balira bezala (*benchmarking*), herrialdeen marketina (lurrealdea ‘saltzen’ jakin behar da), finantzazioa bilatzea (kapitalak erakartzea)... Erreminta horien erabilera hedatu ahala, lehiakortasuna bihurtu da globalizazioan herrialde bakoitzak daukan arrakastaren neurria”.

Honen lehen arazoa zera da, mikroekonomiako ideia bat dena, produktuen eta enpresen lehiakortasuna, politikaren eta herrialdeen alorrean erabiltzea ez dela batere

zientifikoa zenbaiten ustez. Paul Krugman ekonomialari Nobel sari-dunak esanda da: “Esanahirik gabeko hitz hutsa da lehiakortasuna ekonomia nazionaleri dagokienean. Lehiakortasunerako obsesio hori faltsua da eta arriskutsua”.

Enpresetan irabaziak eta lanpostuak ugaritzen dira lehiakideen emaitzak baino hobeak lortuz. Herrialde bat den izaki konplexua enpresen ezaugarri nekez hesitu daitekeela pentsatu daitekeen arren, Ardinat salatu du ideia nagusitu dela munduaren merkantilizazioaren fase berrian: “Onartutzat ematen da lurraldeak sal-erosgai daudela, enpresen esku egonik aukeratzea non kokatu konkurrentziaz baliatuta. Dena (kutsatzeko eskubideak, zor tituluak, lehengaiak...) burtsan jokatu daitekeen mundu honetan, lehiakortasuna darabilte iparrorraz inbertsiogileek: lurralde bakoitzaren emaitzak neurtzen ditu”.

Horrela sortzen dira ranking famatuak. EAE X lekuan dago lehiakortasun txapelketan, Alemania da nagusi, Frantzia galtzen ari da lehiakortasuna... Zerrendok osatzen dituzte aurrez plazaratuta dauden beste indizeak nahastuta: aberastasuna, bizi iraupena, eskolaratze tasak, zor publikoaren nota, aseguru konpainia erraldoiek herrialde bakoitzari ezarritakoa, eta abar.

Enpresak berak zabalduetako irudietan, Frantziako Cap Digital konpainiak sortutako Cap Robotiqueren aurkezpena Parisen. Frantziak lehiakortasuna sustatzeko ugaritu dituen *Pôle de Compétitivité* direlakoetako bat da. Frantziako gobernuak sortutako *Pôle de Compétitivité* horiek honela azaltzen ditu Interneten: “Munduko ekonomia gero eta lehiakorragoa denez, Frantziak 2004an industri politika berri bat abiarazi du. Lehiakortasun guneak sortu dira lehiakortasunaren eragile nagusiak sustatzeko, hauen artean garrantzia berezia baitauka berrikuntzak, eta aldi berean garatzeko hazkundera eta enplegua hazkunde handiko sektoreetan”. Hala ere, Frantziako ekonomiaren lehiakortasun falta salatzen duten enpresaburu, politikari eta hedabideek langileek kobratzen dituzten soldatei eta betetzen dituzten orduei erreparatzen diete. Jaisteko eskatuz.

Krugmanek “lehiakortasun rankingen industria” deitu dionaren sikulutsak.

Sailkapen horiek gehienek munduaren mapa antzera marrazten dute. Nagusi dago zentro lehiakor bat, Iparramerikak, Europak eta Asiako muturrak osatua, horiei gehituta monarkia arabiar petroliotsu bakan batzuk. Talde honen baitan Alemaniak, Holandak, herrialde eskandinaviarrek, AEBek, Japonen eta Singapurrek osatzen dute muin hiper-lehiakorra. Mundu aberats lehiakorraren inguruan luzatuz doa periferia zabal bateko herrialdeen zerrenda, pixkanaka periferia mundu baztertu txiro bilakatu arte.

## Benetako izena: ‘dumping soziala’

Baina zertarako darabiltzagu sailkapenok ez badute balio aurreikuspenik egiteko? Lehiakortzat jotzen diren herrialde gehienek hazkunde tasa txikiak dauzkate, aurrekontuetan defizit handiak, atzerirako salerosketetan berdin, enpresak *deslokalizatzen* ari zaizkie, industria ihesi doakie. Are bitxiagoa, munduko ekonomiaren hazkundera herrialde periferikoei esker da nagusiki.

Lehiakortasun eredutzat oraindik duela bost urte Irlanda, Islandia eta Dubai jotzen ziren. 2007-2008ko krisia sutu eta gero, hirurengatik esaten da gehiegizko espekulazioa





hobeak lortzeko kosteak manipulatzea. Txinak *dumpinga* egiten du klase askotakoa: soziala lan baldintza ikaragarriak baimenduz, ingurumenezkoa, fiskala... Greziari eta besteei ezartzen zaizkien austeritate politikekin gauza berdintsua egin nahi dela ageri da, baina *dumpinga* lehiakortasun bataiaturik.

Lehiakortasunaren batailaren izenean, politikariek baimentzen diete ugazabei lanaren kostea murriztea. Enpresen deslokalizazioari dagokionez, gudu hori galduta dago, beti aurkituko dituzte eskulan merkeagoko parajeak. Aldiz, Europan lana merkatuak kapitalaren irabaziak gizentzea bai da lortzen. Alde horretatik ez da lurralde bat edo nazioa irabazle atera dena, bertako gutxiengo txiki bat baizik.

Bataila honen alboko beste kalte bat ari da gero eta garbiago azaltzen, ikusten denean herritar askoren bizi maila estutu izanak kontsumo produktuen eskaria ahultzea eragin duela. Borrekin batera, BEZarekin estatuek lortzen dituzten sarrerak.

Eta zer diete agintari politikoek? “Lehiakortasuna –amaitu du Ardinategi– ezarri diete enpresek eta nazioarteko merkatuek. Eta agintari hautatuek ezin dituztenez kontrolatu eta batzuk eta ez besteak, haien eskarietara egokitzen dira. Orogen buru, lehiakortasuna helburu jartzeak mozorrotzen du nazio-estatuek agintea eta burujabetza galtzea, horrela suntsituz jarduera politikoaren bidez herritarrrak babestu ahal izatea”. ■



noztu zutela, finantzen erregulazioa eskas zeukatela, zor handiegia zeramatela. Hobe ulertzen da esplikatzeko badizute sailkapenak osatzeko konpainia handietako goi karguei egiten zaiela galdeketa.

Konkurrentzia da, hala ere, munduko agintari gehien azti edabea. Mendebalde aberatsari mundializazioak eskaintzen bide dio balio erantsi gutxiko industriak abandonatu eta kualifikazio handiko teknologia, enpresa eta enpleguetan bereiztea. Horrela lortuko omen ditugu prezioari begiratzen ez dioten zerbitzuak. Ordainetan, herrialde atzeratuak txirotasunetik aterako dira gure lehengo industriak harantz eramanda, prezio apaletan lehiatu behar duten jarduera zaharkitu

horiek. Denok irabazle globalizazioarekin... egia balitz.

Alemaniak alderantzizkoa frogatzen dio Ardinategi: “Lehiakortasuna irabazi du soldatak izoztuta eta BEZ ‘soziala’ ezarrita, hots, enpresen kotizazioak murrizteko familien kontsumoaren gaineko tasak handituta”. Bestalde, informatika eta beste hainbat alor berritzailetan aitzindari ari dira Txina bezalako herrialdeak, horiek ere paradigma gezurtatuz.

Lehiakortasuna hobetzeko aitzakiaz, Europa osoan nagusitu da BEZa igotzea, soldatak jaistea, aurrekontu publikoen murriztea. Ardinategi berreskuratu nahi du lehen gehiago entzuten zen *dumping* kontzeptua: arerioak baino prezio





**ZINKUNEGI  
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia  
T. 943 420 624  
info@zinkunegioptika.com  
www.zinkunegioptika.com

**zuri begira**

Xabier Letona

◆ ARGIAKO ZUZENDARIA



DANI BLANCO

## Hogei egunez, bizia barkatu

**AMAIA EGAÑAK** bere buruz beste egiteak gizartea astindu du. Etxegabeko eskalea pneumoniak jota ospitalean hiltzea ere ez da inoren gustukoa, baina ez du oihartzunik eta, gainera, ohiko herritarrari ez zaio halakorik gertatuko. Baina Egaña ez zen horietakoa. Zinegotzi ohia zen, etxe berrian bizi zen, soldata ona, familia... Herritarrak ikusi du krisi honek edonor bota dezakeela leihotik behera, eta horrek are eta hauskorrago sentiarazi du. Olatu bat sortu da: hedabideak jo eta su, Espainiako agintariak, epaileak, bankuak...

Baina unean uneko beroarenak kenduta, bankuen indarra agerian da berriz, berdin da hauek babes-ten dituen Espainiako legea 1909koa izatea. Banku ahulena ere, Bankiak adibidez, PPK 23.000 milioi euroekin erreskatatu duena, Egañaren heriotzatik bi egunera, Maria Cumbicus bere etxetik botatzeko agindua aztertu zuen Iruñeko epaitegietan. Eta hogei egunez bizia barkatu dio Zizur Nagusiko herritarrari.

Hori guztia, EBk dagoeneko erabakia duenean 100.000 milioi euro eskainiko dizkiola Espainiako finantza sistemari bere burua senda dezan. Hori guztia, azken bi urteetan Europako Banku Zentralak ehunka mila milioi jarri dituen Espainiako bankuen esku %1eko interesarekin, hauek Espainiako gobernuari %7ko interesetan mailegatzeko eta herritarrari %5ean. Edo PPren Gobernuak milaka zerga iruzurgile amnistiatu dituenean. Edo epe laburrean EBren beste erreskate erraldoi bat jasango duenean. Edo Alemaniaren austeritate aginduek joan den astean greziarren lepoa enagarrenez bihurritu dutenean.

Eta hori gertatzen da finantza sistemaren indarra itzela delako: “Egunero merkatuek dirutzak mugitzen dituzte. Adibidez, EBZ-ren arabera, 7 bilioi euro eurogune-ko estatu-erretan bakarrik. Orain, merkatu horien eguneroko erabaki kolektiboak, gobernuak ondora ditzake, politika ildoak agindu eta herriak menperatu” (Ignacio Ramonet, *Le Monde Diplomatique* azaroa).

Eta Javier Olaberri abokatuak (eta Euskadiko Ezkerreko buruzagi ohiak) Espainiako bankuak, agintariak eta etxe kaleratzeak zuzenean lotzen ditu: “Kreditu entitateek epe motzeko 300.000 milioi euroko zorrak hartu zituzten Frankfurt, kaudimen nahikorik ez zuten pertsonen hipotekak eskaintzeko. Euren tasazio filialak medio, gainera, faltsuki goratutako salneurrietan tasatu zituzten etxeak. Ageriko arduragabekeria zen, baina Espainiako Bankuak eta Gobernuak bestaldera begiratzea erabaki zuten. Politikariek patrikak bete zituzten diru-sariekin”. (*El País*, EAEko edizioa, azaroaren 10a).

Testuinguru horretan eratuko da Eusko Jaurlaritza eta krisitik ateratzeko akordio sozio-politiko zabala eskatuko du. Aurreko lerro guztiak kontuan hartuko dituen akordio sozio-politiko izango da? Edo horren guztiaren aurrean bestaldera begiratzeko kontsentsu politikoa?

**EZIN ASMATU** dabilzanen artean dira euskal sindikatuak, abertzaleak eta espainiarrak. Eta 14rako ataka estuan jarri dituzte milaka herritar. Beste behin ere argi ikusiko da Hego Euskal Herria eta Espainia desberdinak direla. Seguruenik, argi ikusiko den moduan

EAEk eta Nafarroak ere desberdin jokutzen dutela.

ELAk eta LABek arrazoi asko dituzte UGT eta CCOOekin asteazkeneko grebara ez joateko. Espainiako sindikatu nagusien ildoak, boterearen itzalpeko praktika sindikala izan da, botereak berak ondo elikatu duena: adibidez, 2010ean Nafarroan UGTk 7,4 milioi euro jaso zituen Nafarroako Gobernutik formaziorako eta CCOO 7,3; beste sindikatuak ezer ez (*Berrria*, Serio Demonio, azaroaren 11). Espainian duten nagusigoak eta bertako legeak baliatuta, sarri ematen die ELA eta LABekin tratatu txarretan aritzeko aukera. Horregatik, eta euskal desberdintasunagatik, ulertzekoa da euskal gehiengo sindikalaren jarraia 14ko greban.



Baina erabakia ulergaitza egiten duten arrazoiak ere asko dira eta, abagunea kontuan hartuta, seguruenik garrantzitsuagoak; akaso sindikalagintzari lotua dagoenarentzat ez, baina herritar arruntarentzat bai. Borroka ez egitea leporatzen zaie UGT eta CCOOri, baina orain borrokara doaz; EBn ez da aldaketa txikiena izango, europar nazioetako herritarrek elkarrekin bultzatzen ez badute; baina Espainian eta Euskal Herrian ere ez. Bakea etsaiarekin egiten den moduan, batasuna adostasunik gabekoen artean egiten da. Aukera bat galdu da. Hilabete eta erdiko epean bi greba egitea korapilatsua bada, hori ere arrazoiaren artean aipatu behar da. Zoritxarrez, batasun sindikalerako aukerak ez dira faltako, ez euskal gehiengo sindikalaren indarra erakusteko, ez euskal langile eta herritarren batasuna erakusteko. ■





ASTE HONETAKO

# zozketak



## Ibernalo Landetxea

Gau bat gosaria barne bi lagunentzat

Kanpezu ARABA  
[www.ibernalorural.com](http://www.ibernalorural.com)

1



## Jorge Oteiza Fundazio Museoa

5 harpidedunentzat bina sarrera

De la Cuesta, 7  
Alzuza NAFARROA

[www.museoteiza.org](http://www.museoteiza.org)

2

**STM**  
San Telmo Museoa



## San Telmo Museoa

5 harpidedunentzat bina sarrera

Zulbaga, 1  
Donostia GIPUZKOA

[www.museosantelmo.com](http://www.museosantelmo.com)

3



## Hasier Oleaga

Cantus Caterva

5 CD opari

Gaztelupeko Hotsak  
Soraluze GIPUZKOA

[www.hotsak.com](http://www.hotsak.com)

4



## Munduko ipuinak

2 lagunentzat opari

[www.argia.com/denda](http://www.argia.com/denda)

5

## AZKEN IRABAZLEAK (2343. Argia)

### EUREKA! Zientzia Museoa

- M. Carmen Otxotorena Huizi (Hernani)
- Arantxa Aizpurua Arruti (Zarautz)
- M Angeles Azpiroz Harrizurieta (Barañain)
- Xabin Mujika Tolaretxipi (Azpeitia)
- Karmelo Busturia Jimeno (Donostia)
- Ander Epelde Ezenarro (Soraluze)

### SAN TELMO Museoa

- Eihar Egaña Garcia (Donostia)
- Xabier Zuzuarregi Salaberria (Zizur Nagusia)
- Imanol Irigoien Aranberri (Diartzun)
- Maria Isabel Aranburu Garcia (Arrasate)
- Patxi Xabier Gonzalez Sanz (Gasteiz)

### ARTIUM Arte Garaikideko Euskal-Zentro Museoa

- Julen Iriondo Martinez de Zuazo (Oñati)
- Peio Garmendia Garmendia (Arrigorriaga)
- Iñaki Urutxurtu Fernandez (Antsoain)
- Lourdes Iruretagoiena Laka (Zarautz)

### EKAINBERRI

- Itsaso Larretxea Alvarez (Donostia)
- Ramon Iriondo Bergara (Hernani)
- Antonio Amondarain Aizpurua (Andoain)
- Malentxu Arrospeide Arrate (Lizartza)

### 888 TXISTE Kike Amonarriz

- Orexako Udal Liburutegia (Orexa)
- Ixabel Jauregi Alberdi (Azkoitia)

\* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

## PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • [gunea@argia.com](mailto:gunea@argia.com)

[www.argia.com/gunea](http://www.argia.com/gunea)

Gunea

argia





# ATXEGA JAUREGIA JATETXEA

Aitzearra, 1  
Zumartegi industrialdea  
☎ 943 37 11 50  
20170 Usurbil (Gipuzkoa)  
[www.atxegajauregia.com](http://www.atxegajauregia.com)

